



8. KULTUR KUDEAKETAREN TOPAKETAK

KULTURAREN BALIO BERRIA

**Altsasuko IORTIA Kultur Gunean (Nafarroa) egindako topaketa,
2022ko maiatzaren 19an**

[APGCNaren Youtubeko kanalean](#) eskuragarri

KULTURAREN BALIO BERRIA

Argitaratzailea: [KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte](#)
info@gestionculturana.org

Testuen transkripzioa eta berrikuspena: [Amore Verbum Traducciones](#)
Diseinua eta maketazioa: [Amore Verbum Traducciones](#)

Edizioa: 2022ko iraila

Argitalpen honetan azaldutako ideiak eta iritziak egileei dagozkienak dira, eta ez dituzte nahitaez editoreen iritziak islatzen.

© Kongresuaren edizioa eta argazkiak: KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte

© Irudietatik: egileak. Irudiak eta bideoak dibulgaziorako erabili dira, eta egileenak dira.

Aurkibidea

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Kulturaren eginkizuna pandemia ondoko gizartean

02 Eztabaida-mahaia: D. Garrocho, M. G^a Alonso eta Xián Rodríguez

Kultura, berrikuntzarako eta aldaketa sozialerako eragile

03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

Kulturarako sarbidea komunitate digitalaren bidez

04 Nafarroako ikus-entzunezkoen kudeaketa: Itziar G^a Zubiri y Rosa

Zinema. Kudeaketa eredu gisa

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

«Zinema nire bizitza da». Kultura-industria baten ikuspegia

Diego S. Garrocho

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentziako dekanordea. Etika eta filosofia politikoko irakaslea da UAMen, eta Kritika eta Argudiaketa Filosofikoko Masterraren koordinatzailea da. Johns Hopkins University, Massachusetts Institute of Technology eta Boston Collegen ikerketa-egonaldiak egin ditu, eta ekoizpen zientifiko zabala egin du.

Aurrerapena:

«Oso gutxi astinduko gaituzten eduki batzuk sartuko ditut, uste baitut kulturaren betebeharra dela erronka hori sortzea eta, era berean, ontzat ematen ditugun kontzeptuetako batzuk gaitzestea».

«Koronabirusa istilu historiko gisa erabiltzen dugu, gure bizitzak nahitaez arautu behar dituen gertakari garrantzitsu gisa, kultur ekoizpena sinkopatu behar duena».

+ Eztabaida-mahaiko partaidea



01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Kulturaren eginkizuna pandemia ondoko gizartean



Kulturaren eginkizuna pandemia ondoko gizartean

Plazera da niretzat gogoeta egitea nire ustez guztiok konprometitzen gaituen zerbaiti buruz, eta eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei, ziurrenik zehazki zer den ez dakigun zerbaiti buruz pentsatzeko eskatzeagatik; eta pandemiaren ondoko zein unetan gauden eztabaidagarria da.

Eztabaidagarriaren kontu horretaz, aurreratu nahi dizuet gutxienez hein batean astintzen gaituzten eduki batzuk ekarriko ditudala; uste baitut erronka hori sortzea dela kulturaren betebeharra, eta baita normalean entzuten ditugun eta ontzat jotzen ditugun kontzeptuetako batzuei aurrea egitea ere, baina uste dut hori hitzak pentsatzen aritzen garenon betebeharra dela –suposatzen baita hori dela filosofiaren irakaskuntzan era gutxi-asko profesionalean aritzen garenok apaltasunez gure gain hartzen dugun zeregin ugarietako bat–, eta uste dut elkarrekin norabide horretan pentsatzeak laguntzen ahal digula.

Pandemiaz eta kulturaz ari gara, garaiko nola-halako nartzismoarekin. Hori izanen da hizpidera ekarriko dudana topikoetako bat edo nire aurkezpenean zehar aipatuko ditudanetako bat. Garai bakoitzak, aro handi bakoitzak, denboraldi luze bakoitzak, pentsamendu-xede bat dauka lehentasunez. Badakitenek diote grekoek aldaketa eta mugimendua hartu zituztela ardatz, edo horiek hartu zituztela

gogoetarako helburu nagusitzat. Hori zentzuzkoa da gizarte arkaikoetan, zeren zeruei begiratzean ikusten dena aldaketa eta mugimendua baita, eta hori da ziur aski, antzinako munduan ez ezik, gaur egun ere aurki genezakeen gauzarik liluragarriena. Ulertzen dugu gauza batzuk modu irregularrean mugitzen direla hemen behean, eta, hala ere, argizagien mugimenduak sekuentzia batzuk sortzen ditu, lege batzuk sortu ere, antzinako pentsamendua liluratu zutenak, eta horrexegatik interpretatu ohi dugu arduratu zirela greziarrak lehentasunez mugimendu edo aldaketa horretan pentsatzeaz.

Denborarekin, Erdi Aroan gogoeta-xedea aldatu zen, eta hori ez da ia inorendako ustekabea izanen. Institutuko filosofia eskolan, jakin genuen Erdi Aroko pentsalariak Jaungoikoari buruz pentsatzen zutela. Monografiko bat bezalakoa zen; mende pila batean, Jaungoikoaren existentziaren auzia hartu zuten xedetzat. Denbora, ordea, aurrera zihoan, eta modernotasunak –beste gauza batzuen artean– galdera interesgarri bat ekarri zigun, jada ezaguna egiten hasi zaiguna: ezagutzari buruzko galdera. Zer ezagutu dezakegu? Noraino ezagutu dezakegu? Nola ezagutzen dugu ezagutzen duguna? Eta zein da geure ezagutzaren muga? Baina aurrera segitzen dugu eta nik uste dut dagoeneko ez gaudela gizarte posmodernoan. Posmodernotasuna, oso argi atzeman dezakegun marko bat da: Bigarren Mundu Gerratik aurrera..... Edo badago, halaber, Nietzscheren heriotza ere iradoki dezakeenik atalase horretarako. Banan jada beste gauza bat gertatzen hasi zaigu.

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Dena dela, zehazki posmodernoak ez garen arren, trantsizio unean gauden arren, badirudi geure buruarengan pentsatzea dagokiola garai honi. Eta, gainera, hori da kultur industriari egotzi ohi zaion urgentzietako bat: bere garaiarekin konprometitua egotea, haren inguruabarrak pentsatzea, bizi garen gizartea eraldatzea. Badago nartzisismo gisako bat, non askotan ez dugun errealitaterantz begiratzen, ez dugun kanporantz pentsatzen, baizik eta geure denborarantz pentsatzen dugu, gertatzen zaigun horretarantz. Narratiban, horixe gertatu da azken hamarkadetan oso era deigarrian: autofikzioa, batek gogoeta-xede izan behar duela onartzea. Hau da, ni-neu, garaia bera, neure jendea, gertatzen zaiguna. Eta horrek aukerak sortzen ditu, baina baita obsesio batzuk ere, eta uste dut kultura arduratsu batek obsesio horiek atzera eramaten saiatu beharko lukeela.

Horregatik hasi naiz barkamena eskatzen, inguruabarrak hitz egiteagatik. Zergatik hitz egin behar dugu pandemia ondoko gizarte honi buruz, ikusteko ea pandemiak behar bezain baldintza sakona, garrantzitsua eta indartsua izan duen? Zertarako eta kultur ikuspegitik eta kultur kudeaketaren ikuspegitik interesatu behar izateko? Badago gertaera bat oso argia eta oso egiazkoa. Pentsatzen badugu nola eraldatu duen pandemiak kulturarako sarbidea, denok irudikatuko dugu gauza bat: pantailak. Pandemiak, batez ere, izugarri garatu ditu jada eskuragarri zeuden tresna teknologikoak. Baina etxean giltzapeturik egotera eraman gintuen inguruabar batek eragin du tresna horiek hain azkar garatu izana. Baina, ustez askoz ere denbora gehiago beharko lukeen hori premiaz aktibatu behar

izan zen. Eta, hain zuzen ere, esposizio digitalekin egin genuen topo; ikusi dugu nola inprobisatzen ziren hainbat molde kultur esperientzia etxeetan gauzatu ahal izateko –esamolde hori nahiago dut kultur kontsumoarena baino–, eta, horrela, munduaren eraldaketa bururaino eraman da eta mundua, egun, pantaila-mundu bat da. Dagoeneko ez du zentzurik errealitate birtuala eta errealitate erreala bereizteak, askotan ia ordu gehiago ematen ditugulako pantaila bati begira munduari begira baino (eta belaunaldien arteko joera aplikatuko bagenu, susto izugarria hartuko genuke). Edo etengabe ari gara kokatzen gure arreta, gure beldurrak, gure afektuak eta gure tristurak non eta existitzen ez denik esanen ez dugun unibertso batean, existitu egiten delako, jakina, inpaktua ere sortzen duelako, eta agerian dagoen eraldaketa bat garatzen duelako, baina mundu itxi horretan dagoena, testuinguru digital horretan, alegia.

Eta hemen, lehenik, gauza bat eginen nuke nik, eta uste dut hori filosofiaren eta, oro har, kulturaren betebeharra dela, hots, lehen prebentzio bat sortzea. Bizi garen inguruabarrean, berrikuntza balio gisa aipatzen zaigu etengabe: unibertsitatean oso irragarria da; irakasleoi beti proposatzen ari zaizkigu irakaskuntzako berrikuntza-planak egitea. Eta bitxia da, ez baitigute proposatzen irakaskuntza hobetzeko planik egitea, hori interesgarriena litzatekeen arren. Hala ere, onartu dugu berritasunak balioa izan behar duela nahitaez: berritzea ona da. Gero, nahitaez onak izan ez ziren agertoki berritzaileak ikusiko ditugu. Zer kausaren zerbitzura? Zer eraldatu nahi dugu eta norantz? Zein da askotan kulturak zerbitzatu duen hitz emandako berrikuntza hori? Eta zein da zenbaitetan modu lasaian alde batera uzten dela eta beti

zoriontsuak ez diren errealitateak itzultzen dizkigula dirudien berrikuntza hori? Digitalizazioaren esparru hori, adibidez, horietako bat da. Osasun mentalaz ari gara, eta nola bultzatzen ditugun gazteak pantailen eraginpean jartzera, eta esposizio hori gazteen bizi-kalitatea argi eta garbi kaltetzen ari dela. Konpromiso klimatikoak, adibidez, baldintza edo ustekabeko ondorio batzuk ere baditu garapen digitalean, eta kontuan hartu beharko lirateke. Baina arlo digitalaren garapenak testuinguru politikoa bera ere sumindu du –eta gero, gerra kulturalak aipatuko ditut–. Beraz, geure buruari galdetu diezaiokegu ea pandemiaren ondoko testuinguru batean kulturaz hitz egitea ote den kultura digitalaz edo kulturaren digitalizazioaz nahitaez hitz egitearen baliokidea, edo digitalizazio hori, berrikuntza hori eta eraldaketa hori bideratu ote dezakegun. Edota, are gehiago, bizipen-erperientzia, hezur-haragizko esperientzia, berreraiki ahal izaneren ote dugun edo berreraikitzeak zentzurik izaneren ote lukeen (beste aukera bat baita), ezusteko erresistentzia-leku horietako baten gisara, leku horretan kulturak zer esan handia duelako nire ustez.

Pentsa genezake hori zentzu zabalean kulturaren dihardugunon gehiegikeria puntual bat dela. Baina badago adierazle berezi bat, termino politikoetan aztertzen badugu. Ez da batere kontu berria politikaren eta kulturaren arteko harremanak ezartzea. Ia XX. mende osoan zehar, eta jakina, Frankfurtoko eskola agertzearekin, politikaren eta kulturaren arteko harremana oso era bizian pentsatu da. Baina uste dut zenbaitetan zentzuzkoa ere badela agertoki politikoei begiratzea, horiek ere eraikuntza kulturalak diren heinean. Eta honakoa deskubritzen dugu: datorren belaunaldiari buruz, hau da, Europako funtsen bidez

agindu den itun sozial berriari buruz, hitz egiten duten EBko ardatz nagusiek edo ildo nagusiek hiru ardatz dituztela, eta ardatz horiek nolabait argitzen ari dira zein espiriturekin birsortu nahi den itun sozial hori. Nik uste dut premiazkoa dela hori berriz sortzea, eta horrek beste leku batera eramanez gintuzke..., zeren, nire ustez, gazteak gogaituak, beldurrez eta antsietate legitimo batez ari baitzaizkigu begiratzen, eta Europak, berriz, hiru oinarri nagusiren gaineko funtsak eskaintzen ditu:

- 1) jasangarritasuna; ados, lehentasunezkoa da, baina jasangarritasuna ez zaigu bizitza oparoaz mintzatzen; planeta jasangarri batean bizitzea, hau da, bizitza ahalbidetzen digun planeta batean bizitzea, baldintza bat da gainerako gauzetarako, baina gutxieneko bat da.
- 2) erresilientzia; hau da, nola ohitu behar dugun kaltera, nola jasan behar ditugun ustekabeak, nola onartu behar dugun gure bizitzak ez duela izaneren espero genuenaren antzik. Eta,
- 3) digitalizazioa. Nik uste dut ez dela asmo handiko proiektua. Ni unibertsitateko irakaslea naiz, etengabe ari naiz nire ikasleekin hizketan, eta asko kostatzen zait belaunaldi baten itxaropena hiru zutabe horien gainean berreraikitzea. Oinarri horiek bai, baliagarriak izan daitezke, baina baliteke nahikoak ez izatea politika aldetik gutxieneko itxaropen bat berreraikitze orduan.

Eta zer besterik sortu digu pandemiaren testuinguruak eta kutur aldetik erabat garrantzitsua dena? Baldintza homogeen baten mendean sartu gaituela. Denok dakigu, eta gainera biologikoki

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

sean suficientes a la hora de reconstruir una mínima esperanza en términos políticos.

programatuak gaude gure ezberdintasun fisonomikoa ezagutzeko, gure aurpegia dela pertsona batzuk beste batzuegandik gehien bereizten gaituen kontuetako bat, ez baitago bi aurpegi berdinek. Hori ere liluragarria da: nola daiteke munduan oraindik ere pertsonak jaiotzea eta inoiz ez izatea bi aurpegi berdinek? Dena dela, pandemiak era homogeneoan bizitzera behartu gaitu, homogeneoagoak egin gaitu zentzu bikoitzean. Lehena, pertsona bereiztezin bihurtu gaituelako. Zenbat aldiz gertatu zaigu hori? Baten batek agurtu gaitu eta esan dugu, “ez zaitut ezagutu, musukoa dela-eta”. Denok askoz ere antzekoagoak bihurtu gara. Baina, gainera, ezaugarri batek, gu antzekoago bihurtzeaz ez ezik, berdin-berdinak egin baitu: hots, denok birus baten arriskupean egoteak. Bagenuen marko kultural bat eta, hartan puntualki kontzentraturik bizi ginen gure bizitza pribatuetan, eta kontzentraturik bizi, halaber, erkidego bakoitzaren, gizabanako bakoitzaren, familia bakoitzaren, kultura bakoitzaren eta hizkuntza bakoitzaren berariazko arloan, eta bat-batean, ohartu gara denok antzeko samarrak garela. Hau da, ohartu gara birusaren aurka, hiltzeko arriskua probablea zela, eta Sudango pertsona batek antza izugarria duela Moskuko pertsona batekin eta Buenos Airesko pertsona batekin. Hau da, denok ginen birus horren arriskupean; denok egin behar genion aurre errealitate desafiataile horri.

Eta hemen ez dut kulturaren funtzioari buruzko diskurtso atsegin edo eroso egin nahi. Ez dut diskurtso gogaikarria egin nahi, baina asmo handikoa bai; izan ere, ulertu behar dugu kulturak

hasieratik duela zerikusia heriotzaren erronkarekin. Gizateriaren historiako lehen kultur adierazpenak heriotzarekiko erreakzio bat izan ziren, edo heriotzaren aurreikuspenaren edo horren aurreko beldurraren aurkako erantzun bat. Kultur praktikak eta produktuak egiten ditugu, kulturak nolabait geure beldurretik bizirik irauteko aukera ematen digulako, eta kulturak hilezkortasun bokazio batera proiektatzen gaituelako. Badakit badirela erakusketak, artelanak, performanceak, guztiz iheskorak, iragankorrak izan daitezkeenak, eta hala ere, giza animaliaaren bulkada sortzaileak beti izan du zerikusia heriotzari buruz buru begiratzearekin. Eta pandemiak hori erakutsi digu.



01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Begira nolako beldurra ematen digun heriotzak, ez bainaiz ausartu hainbesteko polemika sortu zuen El Mundo egunkariko azal hartako irudia erakustera, errenkadan kokaturiko hilkutxen irudi hura, alegia. Mundu guztiak esan zuen ez zela argitaratu behar. Gero, ordea, jendea arduragabea zela ikusten genuenean, jendeak ez zuela pandemia serio hartzen ikustean, eztabaida birbideratu egin zen, eta esaten genuen, “agian eszena gordinagoak erakutsi beharko genituzke, hau kontu serioa dela konturatu gintezen”. Eta, hala ere, hilkorrek garelako jakitearen formulazio hutsa, hau amaituko dela ziurra dela jakitearen formulazio hutsa, kultur produktuak sortzera garamatzen erreakzioetako bat da.



Latinezko atsotitz batek hauxe erraten du: *bizitza laburra da, eta artea, luzea*. Memoria-bokazio hori sortzen dugu. Hilezkortasun bokaziorik gabe, ez legoke, ez heroirik, ez poetarik, poeta baita ahanztea merezi ez duen hori kantatzen duen pertsona. Memoria ere funtseko elementuetako bat da kultura zer den edo zer ez den interpretatzerakoan. Zer oroitu behar dugun. Piktorikoaren baldintza, adibidez, zerk merezi duen erretratatu izatea, zerk merezi duen denboraren ustelkeriatik salbatua izatea, hau da, denbora horren gainera nolabait biziraun nahi duenak. Hortaz, pixka bat kursi ematen badu ere, ausartuko naiz defenditzera kulturak, bere dimentsiorik zabalenean, hilezkortasun bokazioarekin duela zerikusia, iraunkortasun bokazioarekin; horrenbestez, pandemia batek baldintza hori nahitaez desafiatu behar du.

Eta horrelaxe sortu zen berehalako erreakzio bat (industria kultural guztien barnean, nik uste), pandemiaren lehen leherketa-faseak gertatzen hasi zirenean; zenbaitetan, pixka bat traketsa ere bai; ez genekien zer gertatzen ari zen eta ez genekien oso ongi nola erantzun beharra zegoen. Eta kontu horretan, filosofook arras astunak gara gremio gisa, uste baitugu gauza orori buruz eman dezakegula iritzia, errezeta bat dugula gauza guztietarako...



[Liburu-dendan erosi](#)

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Horregatik, honatx argitalpen hau. Proiektuan sarturik nago eta apaltasun-ariketa baten gisa ari naiz. Egoera horren aurrean erantzun behar genuela sentitu genuen. Liburuki handi bat atera zen Paidós argitaletxean, non filosofia-jakintza transferitzeko eta gizartean eragiteko bokazioarekin erakusten duten pertsona asko baitzeuden, eta azkar bildu ginen zer demontre gertatzen ari zitzagun argitu nahian, zer ote zen pandemiaren kontu hura eta zer egin beharko ote genukeen horrekin. Izan ere, une batean denok beldur izan ginen ez ote zen neurrigabea izanen pandemiaren kultura, hau da, topatuko genituela pandemiako olerkiak, pandemiako filmak, pandemiako liburuak, pandemiakko itun filosofikoak. Baina hura halako bilduma bat izan zen eta, bertan, badira arras testu nabarmenak, eta berriz ere frogatu digu kulturak bere inguruabarrarekin erreakzionatzen duela. Arduratsu egin behar du. Eta, gainera, ausartuko naiz esatera kulturak arduratsu egin behar duela edota traumaren tamainaren araberako erantzuna eman, kulturak beti osatzen duelako munduari falta zaion huraxe.

Hau beste testu bat da, Miguel Saraleguik idatzia; artetik esateko, nafarra da. Oso testu ona da eta berriz ere frogatu digu



Liburu-dendan erosi

nola pandemiaren ikonografia iritsi den hasiera batean pandemiarekin zerikusirik batere ez duten liburuetako azaletara. Besterik gabe, koronabirusa une historiko bat bezala erabili dugu, hots, gure bizitzak nahitaez arautu behar dituen gertakari garrantzitsu bat bezala, kultur ekoizpena laburbildu nahi duena, eta gugan erantzuna eragin behar duten elementuetako bat bezala kokatzen dena.

Hori zati deskriptiboa da, baina filosofoekin ere kritiko izan nahi dut. Askok mintzatzen gara pentsamendu kritikoaz, baina gero eta seguruago nago pentsamendu kritikorik onena autokritikoa dela. Zuek, biltzar batean, baten bati pentsamendu kritikoaz hizketan entzuten diozunean, edozein tokitan, galdetu guztiz kontrakoa pentsatzen duen zenbat jende gonbidatzen duten. Zeren, pentsamendu kritikoak egiten badugu, interesgarriena izanen litzateke geure aurreiritziak, geure ziurtasunak, etab. kritikapean sartzea. Orduan, niri beti pentsamendu autokritikoa interesatzen zait. Horrexegatik aukeratzen dut filosofo bat, Giorgio Agamben; bestela ere arras obra nabarmen eta garrantzitsua dauka, baina pandemiaren leherketa gertatu zenean, irrist egin zuen.

“Di fronte alle frenetiche, irrazionali e del tutto immotivate misure di emergenza per una supposta epidemia dovuta al virus corona...”

Giorgio Agamben, 26 de febrero de 2020.

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

Esan zuen: “Iarrialdiko neurri frenetiko eta arrazoiturik ez daudenen aurka nago, koronabirusak eragindako ustezko pandemia batengatik...”. Giorgio Agamben Europako filosoforik entzutetsuenetako bat da eta esaten ari zen pandemia ustezko pandemia zela. Paul B. Preciadok ere irrist egin zuen, eta Zizek-ek, hauxe esan baitzuen: “pandemia kapitalismoaren amaiera izanen da”. Hau da, zenbaitetan, urgentzia kulturalak, azkar joateak, gure inguruabarra pentsatu behar izateko tempo errektiboek eraginik, askotan barregarri gelditzen gara, errespetu osoz esanda. Nola esan dezake Europako filosoforik garrantzitsuenetako batek pandemia itxurazkoa zela eta hori guztia gobernuen itzalpeko kontrol-mekanismoa zela gure mugimenduak kontrolatu nahi izateko? Ba, hara, ziur aski, ez. Gobernuei, ongi edo gaizki jokatzuz, inguruabar ezezaguna egokitu zitzairen eta akatsak eginen zituzten. Oso gaizki dago gobernuekin horrela enpatizatzea, agian nabarmen enpatizatuko dut, baina burura etortzen zait hura nola gobernatu genuen unibertsitatean –erabaki asko beroan hartu baikenituen– eta gauza bat aitortuko dizuet: ahal bezala egin genuen eta hamaika aldiz okertu ginen; izan ere, nire bizitzan, ez nik, ez dekanok, ez errektoreak, inork ere ez zion horrelako zerbaiti, pandemia bati, aurre egin. Eta sumatzen dut autonomia-erkidegoetako presidentek, gobernuko presidentek eta zinegotziek ahal dutena egiten dutela horrelako inguruabar baten aurrean. Baina, diodan bezala, presaz erantzun beharrak eraginik, eta gertatzen zaigunarekiko kultur errezeta tinko eta sendoa izan beharrak eraginik, dibertigarritik zerbait zuen zentzugabekeria motaren bat sortu genuen.

Baina zergatik interesatzen zaigu pandemia kulturaren ikuspegitik? Zer sentitzen dugu berehalakoan? Eskuarki, lerro bat bezala interpretatzen dugu denbora historikoaren lerroa. Kronograma batean ikusten dugu historia modulatu joaten dela, denboran zehar mugitzen dela, baina ez era uniformean, eta pentsatzen dugu gertakari batzuek betirako aldatzen dutela historia. Baina badakigu hori ez dela zehazki horrela, denboraren ikuspegi lineala bidegabea dela, ez baitago lerro bakarra, asko baizik: Mendebaldearen historia gauza bat da, eta beste gauza bat, beste zibilizazio baten historia; eta gauza bat da familia jakin baten historia, zeina litekeena dela ez uztartzea bizitzen ari den testuinguruarekin... Historia beti da konplexua, beti da berridazketa baten emaitza, beti zatikatua dagoen berrinterpretazio baten emaitza, beti da lehiagarria, beti ahazten zaizkio gauzak... baina normalki, garaietako konplexutasuna menderatzen saiatzeko giza bokazioak historiarako zentzuak proposatzera jotzen du, oso gertaera zehatzetatik abiatuz. Horietako gertakari bat, ikonikoa, ia XXI. mendea ireki zuena, hots, Mendebaldeko historia behin betiko aldatzen duen uneetako bat izan zitekeena, Dorre Bikien erorketa izan zen, Frantziako Iraultza baino askoz ere hurbilagoa zaigulako. Bat-batean, historia gure begien aitzinetik igaro zen. Eta denborak arrazoa eman du, hau da, gertakari horrek izugarri berrantolatu zuen mundua, bai eta kultura ere. Pandemia ondoko gizartearen arazoa da ez dakigula covidak izanen ote den zauri bat eraginen duen agertoki horietako bat, hau da, halako eragin itzulezin bat gizateriaren historian, edota kontrara, deskubritzen ahal dugu, ezen, guztiaren ondotik, covidak egiatzki igarotzen denean,

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

administrazio publikoan herritarrei arreta emateko dauden manpara ugariak kentzen direnean, horrelako deus ere gelditzen ez denean, ezta musukoen arrastorik ere, geure buruari galdetzen ahalko ote diogun: eta horrek hainbestean aldatu gaitu edota, azken buruan, irteerako laukira bertara itzuli gara, eta denak antza du pandemia aurreko egoerarekin?

Horri gagozkionez, bi aukera dira beti: *Nova aetas vs. Nihil sub sole novum*.

Nova aetas esamoldeari Hegelek eman zion ospea, aro berria da, aro berria bizi dugulako sentrazioa, dena aldatzen ari delako sentrazioa. Artetik esateko, hori oso diskurtso politikoa da, orain dela urte batzuk, batez ere: une berritzailean geundelako sentrazioa, une erradikal batean, irekitzen zen aukera batean, kultur adierazpidea ere baduena, zeinean inguruabarrei loturiko kultur produktuak eta esperientziak sortzen baitira, orainari loturikoak, gertatzen ari zaigunari loturikoak. Baldintza horren aurrean, beste jarrera bat dago, askoz ere bareagoa, proiektu unibertsalista baten antza izan lezakeena: *nihil sub sole novum*. Qohelet edo Itun zaharreko esaldi horrek “ez dago deus berririk eguzkipean” esan nahi du. Eta kulturak antza handia du horrekin. Arte garaikideko erakusketa batera joaten zara, gauza berritzaileak aurkitzen dituzu, baina gero, Homero edo Euripides irakurtzen duzu eta pentsatzen dugu ez garela hain ezberdinak. Badago sakonki berritzaileak eta hausleak diren gauzen arteko lotura bat eta, hala ere, azkenean gauza orok du antza. Antza dute kultur esperientzia eta produktuak osatzeko darabiltzagun osagaiek. D’Orsek esaten zuen tradizioa ez den oro plagioa dela.

Eta zuetako bakoitzak menderatzen duzuen arloan, aitortuko duzue askotan gauzak errepikatu egiten direla. Kultur arloko gauza naif edo inozoetako bat errepikatzen dena iraultza da: baten batek egiten duenean hauslea dela iruditzen zaion gauza bat, eta gero, ohartzen da hori Parisen gertatua zela 1923an... Eta baten bat hori Malasañako areto batean ari da saltzen zerbait hauslea balitz bezala. Bada, berria dirudienaren eta betierekoa dirudienaren arteko sinkopa horretan mugitu behar dugu.

Kultura ¿?

Kultur kudeatzaileek gustukoa ez duten baina filosofooi izugarri gustatzen zaigun gauza bat eginen dut: kultura zer demontre den saiatuko bainaiz definitzen. Saiatu beharra daukat, zeren, erronka horri aurre egin ezean, edo gutxienez, haren konplexutasuna haztatu ezean, askotan defentsarik gabe egonen baikara kultura defenditu beharko dugunean. Ortegak hitzaldi eder bat dauka, Unibertsitatearen eginkizuna, 1930ekoa. Bertan esan zuen Unibertsitateak, oroz gain, kultur erakundea izan behar duela. Ni kultur industrietako kide sentitzen naiz eta, politikari batekin mintzatzen naizen bakoitzean, kulturaren egiazko interesa zein den aurkezten eta defenditzen saiatzen naiz. Kultura garrantzitsua dela hain begi-bistakoa denez eta hainbestetan errepikatzen denez, orain jendeak hori entzun ere egiten ez duen oihartzun sorra da, jada ez du inolako efekturik. Hozkailuaren hotsa bezalakoa da: hotsa hor dago eta jada ez du inolako jauzirik eragiten, inolako kontzientziarik. Baina, gainera, bereziki gauza arraro batean diharduzue: kultur kudeaketan edo kultur industrian. Eta gainera, programatuak gaude bi kontzeptu

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho

oriekin buruak gainezka egin diezagun. Batek pentsatzen badu industria batean, lantegi batean pentsatzen du, gauza zikin batean, narrats batean, dimentsiorik okerreanean lanarekin lotua dagoena, edo ahaleginarekin, kutsadurarekin... Inork ez du paisaia industrialak imajinatzen paisaia eder baten gisa. Hori oso gauza garaikidea da. Lehenago, paisaia industrialak ederrak izan zitezkeen. Madrilgo Hiltegira joaten bazarete, arkitektura industrialak duena, batek deskubritzen du neke espiritual gisako bat zegoela. Zergatik eraiki zen hain apaingarriz beteriko arkitektura eder bat XX. mendeko hogeigarreneko hamarkadan, non eta azienda hiltzeko toki batean?



Egun, nabe industrial funtzionalak izanen lirateke, edertasunari lekuri batere ere utzi gabe. Hoberantz edo txarrerantz ote goazen, hori beste une baterako utziko dugu.... Baina ulertzen dugu kontzeptu-talka bat badagoela. Pentsatzen dugu industriak irabazi-asmo narrats samar batek mugiarazten dituela, edo asmo prosaiko baten zentzurik onenean, eta gero, kulturak badu funtsean baliotsua delako hats hori, gizatasunaren funtsa zaintzen duelako. Orduan, zer demontre izan daiteke kultur industriaren delako kontu hori?

Definizioaren arazoa

Azpimarratuko dut: definizioarekin asmatu ezean, ez genekike eztabaida garaikide batzuk ebazten. Batzuk deserosoak edo dibertigarriak dira: Las Ventas-ko zezen-plaza.

Hori kultura da? Ez da kultura? Eraso da? Izan daiteke eraso eta kultura? Eraiketa izan daiteke arte ederretako bat? Edo ez da eraiketa? Ez dio axolarik bakoitzak zer pentsatzen dugun, baina nik esan behar badut botila bat den edo ez eskuetan dudan hori, botilaren definizio bat izan beharko dut,



botila den edo ez esan dezadan. Zezenak kultura diren edo ez ebazteko, kulturaren definizio bat izan behar dut. Teorizatzea oso astuna baita, baina ahalegin teorikoa aurrezten badugu, eta baldin eta kultura zer izan daitekeen edo ez bereizteko aukera ematen diguten kategoria metafisiko batzuekin maneiatzeko nahia ez badugu, azkenean porrot egingen dugu. Zeren, adiera batzuek gauza kulturaltzat egiten baitute Auschwitz. Eta jakina, Auschwitz kultura izan zen, ez zuek kultur kudeaketan diharduzuen zentzu duinean, baizik eta kulturaren definizio posible batean. Auschwitz ez da gertakari natural bat, ez da jaiotzen den boniato bat, ez da euria, ez da erreka bat, ez da ura erortzen den turrusta bat... baizik eta gizakiaren eskutik eraikia izan den zerbait. Diseinatu da, pentsatu da, eta gizaterian gertatu den esperientziarik ez moral eta gaitzesgarrienetako bati eman dio bidea. Artefaktu gisa, artefaktu kultural bat da, baina ez kultura den zentzuan, Mies van der Rohe-ren etxe bat, adibidez. Zentzu berean dira Kultura? Nik esanen banizue, zergatik ez? San Agustinek esaten zuen gauza bera gertatzen ahal zaizue, denbora zer zen galdetzen ziotenean. Denborarena konplexua da, zeren, inork ez badit galdera hori egiten, denok baitakigu zer den denbora. Badakigu zer den aurrekoa eta zer atzekoa, badakigu bost eta erdietan elkartzekoak garela... baina inork galdetzen badigu zer den denbora, gaizki pasatzen dugu, ez baitakigu zehazki nola definitu. Hori ere kulturaren auziarekin gertatzen da. Eta ez dut monografiko bat egin nahi kulturaz zer ulertu daitekeen definitzeko, baina ez nago seguru konformatu behar dugunik esatearekin kultura dela kultura esaten diogun huraxe.

Definizio baten ezinezkotasuna

Eta nik ezin izanen dudanez ebatzi, oinarrizko mugarri batzuk ekarriko ditut hona. Marc Fumaroli: Frantziak bakarrik ematen duen intelektual horietariko bat, egiazki gogaikarriak direnak. Ez da gogaikarria eskandalu aurreikusgarri eta zaratatsuetan sartzen delako, baizik eta erronka bat planteatzen duelako. Esaten du kulturaren kontu hau, azken finean, erlijioaren esperientzia sekularizatua dela. Jarraitu behar diogun totem berria da. Eta horregatik, salbuespen kulturala. Frantzia lehen herrialdea izan zen kulturako ministroa edukitzen, gero Mendebaldeko herrialde guztiek errepikatu zutena. Han objektu politikotzat hartzen da kultura eta Estatua hezurmamitzen duten elementutzat. Frantziak Estatu politikotzat egin eta asumitzen du kultura, eta gero, beste herrialde askok, beste komunitate politiko askok, ulertzen dute kultura arlo politiko funtsezkoaren aterpea dela. Gramsciren hegemoniaren ideia horrek guztiak, inspirazio marxistagoa duen materialismoaren aurrean, honako ideia honekin dauka zerikusia: erkidegoak kulturalki hezurmamitzen dira. Horrek beste eztabaida



Liburu-dendan erosi

bat irekitzeko aukera dakar, hau da, kulturaren eta kulturen arteko aldea. Zertan dira berdinak Kultura, kultura handia, eta kulturak eta desberdintasunak? Marc Fumaroliren testu hau gomendatzen dizuet pixka bat gaizki pasatzeko. Ongi dago irakurtzea ongi pasatzeko. Baina batzuetan, testuak irakurri behar dira pixka bat gaizki pasatzeko.

Ferlosio ere ezagutzen duzue, esan ezin ziren gauzak eta era orijinalean esaten zituen intelektual horietako bat da. Zeren, orain badago ezin esan dena esateko jolasean ari den jendea, baina denek gauza berbera esaten dute. Grazia zen gai izatea gauza gogaikarriak intuitzeko. Artikulu errepikakor bat dauka, baina interesgarria: *Kultura, gobernuaren asmazio hori*. Pasa ezazue. Kultura defendituko badugu, lehen kritika interesgarri horiek saihestu behar dira.

Mittoa

Hain interesgarria ez den beste kritika bat ere badago, kulturarekiko hiperkritikoek askotan erabilia eta bidegabea dela iruditzen zaidana: esatea kultura, batez ere, mito bat dela, Gustavo Buenok bezala. Baina hor nik uste dut ez dugula ukatu behar: kultura, bai, mito bat da, ia gauza garrantzitsu oro bezala. Izan ere, jakin genuen kultura, edota komunki ulertzen dugun bezala, Mediterraneo ekialdeko testuetan sortu zela. Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko hasierako kontaktu hartan hasten gara kontakizunak eraikitzen eta, haietatik abiaturik, guk egun kultura pentsatzen dugu, hala nola Edenetik kanporatuak izatea. Hor lehen ideia bat eraikitzen da, eta horrek zerikusi handia du

guk gaur egun kultura interpretatzeko dugun moduarekin. Badakizue, Adanek eta Evak sugeari jaramon egin, ongiaren zuhaitzeko fruitu debekatua jan, eta funtsean kulturalak diren gauzak gertatzen zaizkie: lehenik, lana, hau da, barneratzen dugu naturak ez digula ematen behar dugun hori, natura ez dela nahikoa, ezin dugula natura utzi berez den bezala, lantzeko gai izan behar dugula, babesteko gai; bigarrenik, lotsa-ariketa bat garatu genuen, hau da, janzten gara, kultura guztiak janzten dira, kultura guztietan badago ikustea uzten ez den zerbait, ezkutatzen den zerbait; eta hirugarrenik, barneratzen dugu natura gutxi-asko etsai zaigula.

Baina ideia hori ez da ideia biblikoa, baizik eta errepikatu egiten da gure herentzia kulturalaren hasiera bilatzen dugunean aktibatu ohi ditugun iturrietan, eta jatorrietako bat, jakina, Platon da. Protagorasen planteatzen du kulturaren ideian modurik irmoenean eta jarraituenean eragin duen definizioetako bat. Interesatzen zaidan lehen gauza da nola Platonek baliatzen duen mitoa, zeren mitoak egitura legitimoak baitira eta, haietatik abiaturik, guk gertatzen zaiguna azaltzen dugu. Natura osatzen duten fikzioak baliatzea da. Erreka gurutzatzea ahalbidetzen digun zubiak natura osatzen duen bezala, mitoek, filmek, ikus-entzunezko industria guztiak, abestiek, musikak eta abarrek nahikoa ez zaigun natura bat osatzen dute. Eta mito horretan, Platonek honakoa planteatzen du: Prometeo eta Epimeteo titan anaiei gaitasunak animalien artean banatzeko eginkizuna ematen zaie. Eta beti bezala, zuhurtziarik batere ez dutenak baldarrenak direnez, Epimeteok behatza altxatu eta esaten du, nik kalitateak banatuko ditut. Orduan, espezieak ari dira sortzen, eta batzuei

aho bereziki ahaltsoak ematen dizkie; beste batzuei igeri egiteko gaitasuna, beste batzuei laster egiteko gaitasuna, beste batzuk animalia pozoitsu bihurtzen ditu... Hau da, espezie bakoitzak bere baliabideak ditu bere iraupenari eta bizitza oparoari aurre egiteko. Barraskiloak, bere barraskilo-unibertsoan, ez badiogu trabarik egiten, barraskilo-bizitza aski ona darama, behar duen guztia duelako. Baina, gizakia, biluzik eta armarik gabe, oihanean uzten badugu, sekulan ez du bizitza ona eramane. Kultura bizitza on hori berreraikitzeke darabilgun aterpea da. Diodan bezala, Epimeteok gaitasun guztiak banatzen ditu animalien artean, eta gizakiaren txanda denean, ohartzen da gaitasun guztiak gastatu dituela; orduan, anaia alternatiba batean saiatu da, hots, joan eta Efestori eta Ateneari sua eta arteak lapurtzea (“teknikak” esaten da grezieraz), gizaki guztiok dugun natura zapuztu, ezinezko eta gabeziaz beteriko hori berreraikitzeke.

Hori da, nik uste, kultura definitzeke dagoen erarik onenetako bat: gure prekaritatea eta gure urritasuna berreraikitzen saiatzeke darabilzagun sorkuntza-baliabideak dira, gure bizitza jasangarri egiteke. Eta jakina, ikasi dugu pandemiaren testuinguruan, gure bizitzari zentzu bat emateke beharra dugula. Zenbaitetan, zentzurik arruntena.

Ikusten dugu, adibidez, kultura garrantzitsua izan dela krisiaren kudeaketan. Txertoa goiz samar lortu genuen, moldatu zen koronabirusari aurre egiteke irtenbide tekniko eta zientifiko. Ondotik etorritakoa guztia, hala nola inplementazio politikoa, lehentasunak ezartzeko edo ez ezartzeko erabakia, txertoak guretzat gordetzen ote genituen edo beharrean zeuden munduko

beste leku batzuetara bidaltzeko erabakia, hori ere bada kultura. Arlo zientifikotik moldatu den krisi horri aurre egitea nahitaez zen kultura.

Pandemiak nola baldintzatzen duen kultura. Zer kultur interpretazio ematen diogun pandemiari

Beraz, gure buruari galdetu behar diogu nola baldintzatzen duen pandemiak kultur esperientzia. Puntu honetan Ortega baliatu nahiko nuke, baina baita Camus ere. Camus madarikatua. Harengatik hasi nintzen erretzen, baina gero utzi nuen. Camusek, El mito de Sísifo lanean honakoa esaten du: bizitzak zentzurik ez izateak ez du zertan arazo izanik, horixe baita bizitzari zentzua bilatu ahal izateke aitzakia eta kultura, askotan, zentzu baten bilaketa hori da. Baina ez du hori atzitzen era errebelatu baten bidez, erlijio batzuetan egiten duten bezala, baizik eta zentzu horren berreraikuntza egiten saiatzen da era proaktiboan.



Albert Camus

Azken puntura iritsiko naiz. Beharbada ustekabeak izanen ditugu, mundu asaldatu eta turbodigitalean bizi baikara. Metabertsoari buruzko solasak entzuten ditugu, ikusten dugu jendea aberasten saiatzen ari dela existitzen ez diren gauzak erosiz, bitcoinak adibidez... Kultura da digitalizazioa porrot ere egiten ari dela deskubritzen dugun leku horietako bat. Pentsatzen dut, adibidez, podcasta bezalako tresna hain sinplearen erabileran. Bizi izan gara irudiaren gizartean bizi garelako mantra hori entzuten, eta dena irudia izan behar dela... baina gehien zabaltzen ari den industria kulturaletako batek entzutearekin du zerikusia. Eta askotan tresna teknologiko edo landurik ez duen entzutearekin. Jendeak entzun egin nahi du.



Nik ponentziak aurkezpenik gabe egin ohi ditut, ez dut nahi etengabe irudi bati erne egon behar izatea. Egon beharra dago kultura ekoizteko modu bat joera horiei aurre eginen diena. Ez dut esan nahi teknofobia izan behar denik, ez dut esan nahi irudiaren kontrakoa izan beharra dagoenik, baina, uste dut, nolabaiteko sorkuntza aniztasun baten alde aritze aldera, mantra horiek desafiatzeko gai izan beharko genukeela, zeren litekeena baita garapen teknologiko hori zertan ez izanik uste bezain oparoa eta uste bezain ona.


Polarizazioa eta gerra kulturala

Ikusten ari garen testuinguruetako bat gerra kulturala da, hizketa publikoaren gunea eraikitzeke moduak garatua eta hauspotua. Hori ere kultura da: nola hitz egin behar dugun erabakitzeke modua, zein plataformatatik hitz egiten dugun, esangarriaren eta esan ezin denaren administrazioa lehentasunezko kultur agertokietako bat da. Hori dela-eta mintzatzen ari da egun gerra kulturalaz, nahiz eta ez zaidan hitz hori gustatzen, eta nahiz eta inoiz ez naizen eroso sentituko, baina prest nago bataila estetiko bat emateko, eta hori partearen kontzesioa da. Uste dut interesgarria direla ederra zer den edo ez gaiaren inguruko bataila eta lehia.

Baina arestian esan dudan bezala, baliteke datorren etorkizuna ez izatea etorkizun oparoa. Klima-adierazleek horrelaxe ohartarazten dute: baliteke etorkizuna ez izatea itxaropenen lurraldea, eta hori oso eragin argia izaten ari da kultur arloan, oroiminaren industrien bidez.

Gaizki dago nik aipatzea, baina iaz, Madrilgo Are Ederren Zirkuluan eman nuen ikastaro batek zerikusia izan zuen oroiminaren industria kulturekin. Reynoldsen liburua da ziur aski ideia hori sortu zuen lehena: zergatik interesatzen zaigu hainbestean itzultzea? la teknofilia pornografikoan gauden bezala, ikusten ari gara askotan dela kultura atxikipen estetiko bat aurkitzen dugun lekua, beste leku batzuetara itzultzea. Black Mirror-en adibidea dago, eta itzultze horrek agian zerikusia du etorkizunak ematen digun beldurrarekin. Eta horrela,

01 Kulturaren eginkizuna: Diego S. Garrocho



autokritika besarkatzea ez daitezela eslogan hutsa izan, baizik eta kultur esperientziak ekoizteko eta kontsumitzeko leku bat.

Eskerrik asko.

folkmodernotasunetik oso hurbil dagoen zerbait topatzen dugu, folky-aren berreskurapena. Nire ikasleak zur eta lur daude C. Tanganaren bideoarekin, azken finean Mediterraneoeko familia-bilera bat da: osaba-izeba guztiak mahai baten inguruan bilduta, likoreak edaten eta abesten. Eta hori zeinurik iraultzaileena da belaunaldi batentzat.

Bukatuko dut. Baina azken ideia bat proposatzea gustatuko litzaidake, hots, luzaroan mintzatu gara kulturaz aterpe-balio gisa, eta horrek badu bere zentzua mundu aldakor eta mehatxagarriaren aurrean. Salbu sentitzen garen leku bat da kultura. Izan ere, “kultura segurua da” izan da kultur munduko claim-etako bat eta ongi dago horrela izatea, baina halaber ausart gaitezen. Politikak ere pixka bat segurtasunik gabea izan behar du, ez osasunarendako, ez gu kutsatzeko, baina izan dadila erronka bat, arrisku hartze bat; hau da, kultur arriskua eta

02 Eztabaida-mahaia: D. Garrocho, Marcos G^a Alonso eta Xián Rodríguez



Marcos García Alonso

Kultura-kudeatzailea eta -aholkularia. Plataformetarako komunitate digitalekin lotutako estrategien garatzailea

Zuzenbidean lizentziatua eta Kultur Kudeaketan masterra, MBA Europar Batasuneko DIE Programan eta PMP[®]. Kultur kudeatzaile eta aholkulari gisa lan egin du AEBetan, Latinoamerikan eta Espainian, hainbat erakunderentzat, hala nola Miamiako Espainiako Enbaxadaren Merkataritza Bulegoko Kultura eta Sormen Industrien Departamentuarentzat.



Diego S. Garrocho

Aurkezpena 3. orrialdean




Xián Rodríguez

Kontseilari teknikoa. Autonomia Erkidegoekiko Kultur Lankidetzarako Zuzendariorde Nagusia. Kultura eta Kirol Ministerioa

Kultura-kudeatzailea, giza zientzietan lizentziatua eta kultura-ondarearen kudeaketako masterra. AECID eta SEGIBeko lankidetzak kulturalaren esparruan eta CCCB, MACBA eta Fundación Joan Miró-n (Bartzelona), Hayward Gallery-n (Londres) eta Museo Naval-en (Madril) arte plastikoen esparruan egin du bere karrera.

02 Eztatbaida-mahaia: D. Garrocho, Marcos G^a Alonso eta Xián Rodríguez

Kultura, berrikuntzarako eta aldaketa sozialerako eragile



Creo que en el ámbito rural también está a aplicar políticas de crecimiento, que creo que son importantes. Es necesario siempre



Kultura, berrikuntzarako eta aldaketa sozialerako eragile



Marcos García Alonso: «Ongi etorri eztabaida honetara. Niri beti gertatzen zait, are gehiago elkarrizketa-mahai bat irekitzen dudanean –eta espero dezagun eztabaida-mahaia izatea, eta agian, polemika-mahaia ere bai–, inpostorearen sindromea sufritzen dudala. Kultur aholkulari eta kudeatzailea naiz, plataforma baterako lan egiten dut, baina neure izenean nator eta, ez, ordea, inoren edo ezereen izenean, baina ezin dut errealitate hori alde batera utzi. Batek beti sentitzen du egiazki ote zaizuen baliagarri hemen kontatzera natorkizuen. Eta erabilgarritasunaz ari naiz, ez alferrik hemen hiru zutabe edo hurbilketa ditugulako kultur egitatera: arlo instituzionala, Xiánekin; arlo akademikoa, Diegorekin, eta arlo pragmatikoa, nirekin, nik uste. Urte sail luzean horrelako topaketa eta hitzaldietara joan ondoren, ez da inoiz egon norbaitek kultura definitu nahi izan ez duen unerik. Uste dut ez dela eztabaida hori gainditu, oso ongi ikusi dugun bezala. Baina nire kapela pragmatikotik, nolabait, ezin zaigu eskatu kulturaren egunerokotasunean lan egiten dugunoi definitu dezagula esku artean lan egiteko darabilgun lehengaia; ezin zaigu eskatu definitu dezagula zer garen eta zer egiten dugun, zeren, dakizuen bezala, kultur kudeatzailearen definizioa bera behin eta berriz agertzen baita elkarte mailan eta maila instituzionalean, eta gero, egin dezagula egin behar dugun lana. Besterik gabe, aukera-kostua esaten zaion kontu oso pragmatiko batengatik; izan ere, hau egiten ari zaren bitartean, ez zara egiten ari gutxi-asko produktiboak izan daitezkeen beste gauza batzuk edota zure lanbidea edo kultur proiektuak garatzen lagundu dezaketena, lan-taldeekin lan egiten baduzue. Horrenbestez, berrikuntzaren ikuspuntutik, bai eta hemen harilkatuko diren gainerako kontzeptuen ikuspuntutik ere, uste dut oso ongi osatua dagoela eztabaida-mahai hau.

Aurreko ponentzian, oso interesgarria izan zait zientzia-kultura kontzeptu guztia, bai eta kulturaren, gerra kulturalen eta gainerakoen definizioa bera ere. Ez dakit nahita edo nahi gabe, ekonomia alde batera utzi dugu. Duela urte batzuk, nire roletako batean, hots, Espainiak Estatu Batuetan duen enbaxadako Kultur eta Sorkuntza Industrien saileko arduradun-aholkulari lanetan nabilela, Miamin, lehenbizi harritu ninduen,



eta gero, ikusi nuen erabateko zentzua zuela ezen hezkuntza arloa eta unibertsitate arloa kultur eta sorkuntza industriren kontzeptuaren barnean egotea ikuspuntu ekonomikotik. Hau da, Espainiak Miamin duen merkataritza-bulegoarentzat –ICEXentzat–, unibertsitatea eragile ekonomikoa zen eta kultur eta sorkuntza industriren barnean txertatzen zen. Halaber, estatubatuar batzuk Espainiara eraman eta trukaketa-programak sortu nahi zituztelako, baina uste dut oso ongi dagoela mundu akademikoaren egunerokotasunean dagoen norbait kultur eta sorkuntza industria horretan sarturik dagoela jotzea; eta askotan, haren kontzeptua, denek dakizuen bezala, krisian dago edota berdefinizio etengabe.

Badago kontzeptu horretan gutxi-asko eroso sentitzen den jenderik eta, horren ondorioz, etengabe ari gara behin eta berriz berdefinitzen, ez dakit gure burua justifikatzen, baina bai “kultura garrantzitsua delako” jarrera hori hartzen».




Xián Rodríguez: «Poz-pozik agurtzen zaituztet, Adriana Moscoso del Pradoren partez ere agurtu nahi zaituztet, gure zuzendari nagusia da Kultur Industrietan, Jabetza Intelektualean eta Lankidetzan, Kultura eta Kirol Ministerioan. Ni duela bi hilabete sartu naiz ministerioan, “Kultura eta Herritarrak” izeneko programan. Gero, oso labur mintzatuko natzaizue programa horretaz. Kontzeptu batzuk ekarriko ditut hona nire ikuspuntutik, kultur kudeatzailea naizen aldetik, azken hamabost urtean aritu bainaiz lanbide horretan, baina batez ere, kultur kudeatzaile gisa arlo publikotik. Zeren, nire ustez, pandemiak eragindako shock-ak agerian jarri baitzuen inoiz baino gehiago zer-nolako mendekotasuna duen kultur sektoreak arlo publikoarekiko, eta halaber, jakina, horrek dakarren ardura izugarria. Trantsizio uneotan, gertatu den eta gertatzen ari denaren guztiaren ondotik, birformulazio unean gaudenean nik uste, sektore publikoak ahalegina egin behar du egonkortasuna, erantzunak eta alternatiba bideragarriak emateko, sektore hain zabal bezain hauskor horrek ibiltzen jarraitzeko aukera izan dezan.

Nire esperientzian oinarriturik egin dut sarrera hau, baita nire aurreko lanpostuan oinarriturik ere. Pandemia lehertu zenean, ni aldi baterako erakusketen arduraduna nintzen Madrilgo Erkidegoko Kultur Kontseilaritzan. Pandemiaren ondotik, erakusketa-proiektu batzuk abiarazi genituen, eta bai ukitzen zituzten edukiengatik, bai publikoaren erantzunagatik, uste dut lagungarriak zaizkigula gako jakin batzuk antzemateko, kultur sektorea nola eraldatzen ari den igartze aldera. Hiru erakusketako irudi batzuk



erakutsiko dizkizuet: lehen erakusketaren bidez, 2021eko otsailera joanen gara, Guillermo Pérez Villaltak ondua, El arte como laberinto izenekoa (Artea, labirinto gisa). Hura egiazko labirintoa gertatu zitzaigun kultur kudeaketari begira, munta handi-handiko erakusketa baitzen. Artistak diseinatutako labirinto bat eraiki genuen, kontu oso nekosoa izan zen maila askotan, zalantza handiak sortzen zizkigun, bai eta ziurgabetasun handia ere; baziren murrizketak mugikortasunean, eta publikoa artean ere ez zen itzulia arte gune publikoetara.



Hizpidera ekarri dut, publikoaren erantzuna oso ona izan zelako, harrera on-ona izan zuen, labirinto hori ez zen hutsik gelditu, bete egin baitzen baimenduak genituen edukiera-mugen barnean. Eta uste dut, beharbada toki guztietan, pandemia-une hartan, kultura tresna bihurtu zela, salbagailu. Hori gertatu zen, kulturak egiazko balio-geruza bat duelako bere inguruan, eta balio horiek funtsezkoak dira, eta, bereziki arlo publikotik, hori gogoan izan behar dugu.

Kultur Industrietarako Zuzendaritza Nagusiaren izenean etorri naiz. Hori ere termino polemikoa da, baina uste dut kulturaren ikuspegi merkantilistago hori errealitatea dela, ezin dugu bazterrean utzi; sektore pribatuarentzat da bereziki garrantzitsua, baina sektore publikotik ere erreparatu behar diegu pandemia garaian oso era agerikoan ikusarazi diren beste balio-geruza horiei. Kultura, bitartekari lanetan, ondoez fisikoarekin, gogo-aldarte txarrarekin, ondoez psikologikoarekin... Areto horietako ateak irekitzea eta publikoz betetzea ustekabea izan baitzen guretzat, eta horrek erakutsi zuen bazela berriz ere kontsumitzeko beharra, gozatzeko beharra, kulturarekin topatzeko beharra. Erakusketa, gainera, oso



entsoriala zen. Publikoak hormetako zirrikietan, labirinto horretan, obrak bilatzea zuen erakusketak xede. Kulturak era askotako balioak dituelako ideia utzi nahi dut eztabaidarako ideia gisa.

Bigarren geldialdia handik hilabetera soilik gertatu zen, areto txikiagoan, Madrilgo Erkidegoko Arte Gaztearen aretoan. Aretoa artista eta komisario berrientzat zen, 35 urtetik behekoentzat. Erakusketa pandemiaren unerik txarrenean pentsatu zen, itxialdian geundenean, eta normaltasun berriaren unean aurkeztu zen, eta artean ere ez genekien nolakoa izan behar zen topaketa hori gizartean.




Claudia Rodríguez Ponga eta Isabella Lenzi komisarioek hainbat artistaren proposamena proposatu zuten, hain zuzen ere espazio komuna lantzen zuena. Ezkerreko irudian, joskintza-tailer kolektibo handi baten zati bat ikusten duzue, bertan eraiki baitzen. Hor kolektibitatea zen garrantzitsua. Prozesuak elkarrekin aktibatzeke leku bat zen, eta beste diziplina batzuetara irekitzeko, hala nola psikologiara eta telekomunikazioetara. Eta horixe da ekarri nahi nuen bigarren ideia: pandemian elkarren mendekotasunera bideratuak egon ginela halabeharrez. Beharra izan zen. Eta kezka-iturria zen horri nola heldu. Hori ere aukera da, hau da, kultura lotura delako ideia hori, komunitatea sortzen duen zerbait, eta alde askotara sortzen duen zerbait. “Nudo nido” proiektuaren gauza nagusia eta agerikoena loturaren, enpatiaren, afektuaren, hurbiltasunaren behar hori zen. Ez soilik gizakienganako enpatia, baizik eta naturarekikoa ere bai, horixe baitzegoen nolabait pandemiaren jatorriaren atzean. Baina, era berean,



beste ideia bat, prozesu artistiko horietan ikusten zena, non arte plastikoetatik urruntzen ginen eta prozesuan nahiz ekarpen eraikigarri txikietan oinarritutako sorkuntza artistiko baterantz jotzen genuen. Sare-lanaren ideia hori, elkarlanaren ideia. Eta, kultura, halaber, lotura gisa beste diziplina batzuekiko, arras bestelako sektoreekiko. Pandemia garaian oso argi ikusi zen kulturak psikologiaren eta osasun mentalaren eskuari heldu ziola, eta frogatu zen oso tresna eraginkorra zela egungo ondoez garaikideari aurre egiteko; eta halaber, telekomunikazioekin eta beste diziplina batzuekin. Ideia hori ere ekarri nahi nuen, hots, kulturaren lotura eta komunitate ideia hori, politika publikoak planifikatzen ditugunean ere kontuan hartu behar duguna.

Eta azken erakusketa, toki berean, Arte Gaztearen aretoan, normaltasun berriaren unean kontzeptualizatua eta, 2022ko otsailean, aretora ekarria. Hor bestelako ikuspegia zegoen. Ignacio González Olmedok eta Juanjo Aguilarrek komisariatua, erakusketan bi gauza kontrajartzen saiatu ziren: batetik, Yuppieen ikuspegia, hau da, bakoitzaren ongizatea eta hazkundera, eta, bestetik, errealitate milenial-a, oso latza krisi garaian, eta sisteman irekiz joan ziren arrakalek erantzun artistikoak aurkitzen zituztela.



Eta proposamen artistiko horiek guztiek prozesu aringarriari erreparatzen zietela, hau da, zauri horiek sendatzen saiatzen ziren prozedura horiei. Ikusten duzuen bezala, esku-hartze artistiko horiek fitness eta kirol munduarekin dute lotura, ongizatea lortzeko, eta lotura ere, bitartekaritzaren munduarekin... bai eta



astrologiarekin eta mundu esoterikoarekin ere. Arrailez eta haserreaz beteriko une sozialarentzako alternatiba aringarriak dira. Eta erakusketa hau ekarri dut gero eta agerikoagoa delako solaskide gazteagoekin aritzen garenean mesfidantza bat dagoela sistemarekin, arlo sozialarekin, haserre bat, desengainu bat. Hori gure begiradan txertatu behar dugu. Horrek potentzialtasun onuragarriak ere baditu. Nire arlora etorriko naiz, arte plastikoenera, alegia: gero eta begirada iheskorragoa dago, baina idealtasunezko eta fikziozko agertoki berriak bilatzen ditu, daukagunaz bestelako alternatibak bilatzeko tresna gisa.

Baina uste dut, halaber, arlo publikoak egonezin horri heldu behar diola eta egonkortasuna dakarten kultur politiken alde egin. Politikak berak egonkor izan daitezela. Azkenean, krisi ugari kateaturik etorri badira ere, instituzio publikoak lortu du gaineratik jartzea, neke handiz, ñabardura askorekin, baina hortxe dago eta bandera-ontzi bat izaten segitzen du, eta sektorea haren mendean dago, bertan mugitzen baita dirurik gehien, bai eta jarduerarik gehien ere. Garrantzitsua da politika publikotik behar horiei heltzea eta belaunaldi horiei egonkortasuna emanen dieten horizonteak bilatzea, ez baitute egonkortasunik.

Nire egungo lanaz beste gauza bat, “Kultura eta Herritarrak” Programa 2015ean sortu zen eta halako lotura bat izan nahi zuen kulturaren gertatzen ari zenaren eta kultur politiken beraien artean. “Kultura eta Landatasunak” izeneko programak kultur sektorearen bazterretan gertatzen ari denari arreta ematea du xede, arlo instituzionalak menderatua, eta ikastea, zertarako eta neurri berriak hartzeko eta politika publikoan askoz ere zentzun zabalagoan eragiteko».



Diego Garrocho: «Hizpidera ekarri diren gaietako bati berreldu nahi diot, horretan sinesten baitut eta uste dut denok ados gaudela, baina beti ez da agerikoa. Lehenago Fumaroliren liburuaz mintzatu naiz eta, uste dut, Frantzian kudeaketa publikorako eztabaida-esparru interesgarria ireki dela, hots, salbuespen kulturalaren ideia. Arlo publikoak arazo bat dauka. Izan ere, publiko hitza esaten denean, berehala tentazio ideologiko bat dago, eta legitimoa da, pertsona batzuk esku-hartzaileagoak direlako, liberalagoak, protekzionistak hein handiagoan edo txikiagoan, baina nik kulturaren salbuespenezko izaeran sinesten



dut, eta hezkuntzaren salbuespenezko izaeran ere sinesten dut. Alor horietan, izan ere, inspirazio liberalagoa duten edo hain esku-hartzailea ez duten pertsonak ulertu beharko lukete edo ulertu lezakete kulturaren alorra salbuespenezkoa dela, haren xedeen lorpena beti delako oso epe luzera. Kultur ondasunek sortzen duten errendimenduarekiko konfiantza politikoari dagokionez, ondasun horiek ez dute berehala ekarpenik ekartzen merkatu-ekonomiatik ikusirik. Eta garrantzitsua da gu gai izatea salbuespenezko apustu hori legitimatzeko, hezkuntza arloan bezala. Esparru hori saiatzen naiz behin eta berriz ezartzen, oso garrantzitsua delako, nik, uste, bai eta salbuespenezkoa ere.

Uste dut askotan kultura defizitarioa izan daitekeela, eta berriz ere esanen dut, hori ideologikoa izan daiteke, baina nik publikoki defendituko nuke Estatuak egon behar duela zerbitzu garrantzitsuak dauden baina defizitarioak diren tokian. Unibertsitatean erruz gertatzen da, gero eta estresatuago gaude okupazio apaleko irakasgaiekin, harrera onik ez duten diziplinekin. Siriakoan adituan den irakasle bat izatea oso gauza frikia iruditzen zaigu, baina nik uste dut hori ona dela, alde batera utzita ikasle aunitz edo gutxi duen, eta sintaxi grekoari buruzko irakasgai bat eskaintzea, alde batera utzita ikasle asko edo gutxi duen; hori ezin da merkatuaren logikaren arabera deskribatu, baizik eta hori babestu behar dela ulertu behar dugu kolektiboki, baliotsua delako, errendimendurik ez eragin arren. Ez naiz inozoa: hurrengo galdera da nork erabakitzen du zein den zaindu beharreko elementuen balioa, baina hori eztabaidaren bigarren unea da, uste baitut legitimoa dela. Uste dut politika publikoen esparruan, baina baita esparru pribatuan ere, oso zainduta eduki beharreko bi hierarkia daudela: kritikoaren figura eta kultur kudeatzaile publikoaren figura, eta nola edo hala, bi-biak lehentasunezko kontsumoak edo esperientziak eragiten ari dira kultur esparruan. Ongi zainduta egon behar dutela esaten dudanean, ez du zertan esanik nahitaez kritikatuak edo jazarriak izan behar direla, baizik eta gardentasun osoz jardun behar dutela, bai eta askapen gune batean ere, non proban jar ditzakegun zer arrazoiek bultzaturik uste dugun kultur esperientzia jakin batzuek babestea merezi dutela edo ez. Nire ustez, eztabaida publikoa lohitu egiten da aurretiazko une horretan, hau da, kultura diruz lagundu behar den edo ez, eta nik uste dut interesgarria izanen litzatekeela ulertzea hori giza esperientziaren marka bat dela. Ez dut itxura oso pedantea hartu nahi, ezta oso akademikoa ere, baina Platonen Errepublikako une batean hiri posible bat deskribatzen diote Sokratesi, biziraute hutseko hiria, non jan, oinetakoak aurkitu eta beste egiten ahal den... Eta esaten du: “hori txerri-hiri bat da”. Hau da, ezin dugu konformatu giza erkidegoak premia gorrienak asetzearekin. Erkidego batek, oparotasunaren aldetik,



luxu jakin batzuk ere ordaindu behar ditu. Kultura, jakina, luxua baita, behar-beharrezkoa den luxua, gizatiartzen gaituen luxua. Orduan, nire ustez, Espainian falta zaigu ulertzea kultur apustua salbuespenezko apustua dela, naturalizatu beharrekoa eta gaur egun lankidetzan publiko-pribatu oso interesgarria sortzen duena, non ez baitago lehiarik, baizik eta sinergia perfektua, harreman berria ekarri duena eta, are gehiago, beste sektore batzuetara ere eraman daitekeena, batzuetan hori ahaztu egiten baitzaigu».



M. G. A.: «Bai, nire ustez, arlo publikotik badago dinamizazio lana, badago ardura, agian handiagoa guztion baliabideak kudeatzen aritzeagatik. Halaber, denok ziurrenera entzun dugun bezala, balioaren eta prezioaren bereizketan sinesten dut, hau da, balio erantsia dakarren gauza orok epe laburreko logika merkantilista jakin batzuetatik kanpo egon beharko luke. Hori horrela izanik, nik gogoratu dut, Xiánek bai norberaren ongizateaz, bai kulturak arlo pertsonalaren ekosistema horretan guztian duen garrantziaz esandakoaren haritik – are gehiago, denok pixka arraroak gabiltzan une sozial honetan –, orain dela urte batzuk oso profesional ona den kultur kudeatzaile batek, Jaime Antichek, beti alderaketa edo dikotomia egiten zuela kirolaren eta kulturaren artean, itxuraz oso gauza arriskutsua zena eta nolabaiteko polemika eragiten zuena. Azken finean, esan nahi zuen lortua genuela kirola gizartean onuragarritzat jo izana maila fisikoan, eta beharrezkotzat jotzen dela, eta lortu ere, jende guztiak urte hasierako erronketan gimnasia joaten hasteko apustua egiten duela, osasunez bizitzea, elikadurarekin osatzea, etab. Badagoelako onura fisikoa, eta onura psikologikoa, eta kultur kudeaketaren nahiz zabal ulertutako kulturaren erronketako bat zela azaltzen saiatzea zergatik kultura ere baden onuragarria bai maila fisikoan, ateratzen ari diren azterlan batzuetan ikusten hasi garen bezala, batez ere





uropan, Erresuma Batua buru dela, bai eta maila psikologikoan ere, jakina. Hainbat bataila daude zabalik eta, agian, galtzen ari gara. Kontzeptuei eta definizioei buruzko batailak baizik ez dira, baina garrantzitsuak dira diskurtso hori eta balio hori definitzerakoan.

Horren guztiaren barnean, “Kultura eta herritarrak” eta gisako programak guztiz beharrezkoak dira, baina ongi kontzeptualizatu behar dira. Hau da, ez dut uste ez daudenik, eta ezagutzen dudana gustatzen zait, baina uste dut, “kulturaren mugetan, aldamenetan, periferietan, etab. gertatzen dena entzun nahi dugu” definizioak zentzua duela, baldin eta arlo publikoak ematen dion laguntza ematen bada egun sortzen ari diren egiazko berrikuntza-prozesuak ez estaltzeko moduan. Nire ustez, denok dakigu esparru ez zentralistetatik (lurraldeari dagozkion terminoetan) etortzen ari direla prozesuetan, estrategietan eta emaitzetan gertatzen ari diren berrikuntza asko. Zuek horren guztiaren adibidea zarete, Euskadi adibidea da... baina askoz ere adibide gehiago eman genitzake lurralde mailan. Nik uste dut esparru pribatutik sortzen ari dela gauzarik interesgarriena estatu mailan berrikuntza-prozesuetan, ez soilik emaitzei begira, baita prozesuei beraiei begira ere. Zer gertatzen da horrekin? Diruaren edo baliabideen bila joaten garenean proiektu jakin batzuk gauzatzeko, zailtasunak ditugula “inbertitzaile pribatuei” balio hori azaltzeko, edota deialdi publiko batzuei gaude lotuta; gainera, deialdi horiek, nire ustez, ez dituzte beti betetzen bete beharreko helburuak emaitzei begira, ez soilik ukigarriak, baizik eta balio-proposamenari begira, hau da, zer puntuatzen den eta zergatik puntuatzen diren gauza batzuk. Hori autokritika da, zeren, besteak beste, Asturiasko Gobernuarekin lan egiten baitut deialdi publikoetan, hala nola “Asturies Cultura en Rede” zikloan, etab. Zein puntutaraino egiten dituzte kultur kudeatzaileek proiektuak deialdietarako edota bilatzen dituzte deialdiak beren proiektuetarako? Barrenetik aztertu beharko genuke eta ikusi zer dakarren horrek bai gizarte aldaketari bai berrikuntzari begira. Ia galdera eta gezi gehiago jaurti ditut erantzunak baino, oso zailak baitira aurkitzeko honelako foroetan».



X. R.: «Solaskideek esan dutenari heltze aldera, uste dut arlo publikoa oso gauza handia eta konplexua dela, eta hainbat sentsibilitate dituela, eta jakina, oso hobegarria ikuspuntu guztietatik. Baina, proposamenak egin nahian, eta zer hobetu daitekeen identifikatzen saiatuz, uste dut ekitaldiaren kulturak, hau da, une batean gertatzen dena sustatzeak, nabarmen baldintzatu dituela politika publikoak, dela finantziazioan, dela programazioan, eta hori ñabartu beharreko elementuetako bat da, ez dut esan nahi horri aurre egin behar zaionik; zeren, covidarekin egonen ez banintz, asteburu honetan jaialdi batera joanen bainintzateke. Baina politika publikoek kultura egiteko beste modu batzuetan jarri behar dute indarra, bitartekaritza-prozesuetan, oso garrantzitsuak baitira. Hori hala laguntzetarako deialdiei dagokienez, nola entitate publikoen programazioari berari dagokionez. Bitartekaritza-prozesu horiek lagungarriak baitira azturak sortzeko, kulturari hautemateko modua aldatzeko, eta kultura gizartean gehiago sartzeko, balio-geruza ugari horien bidez. Hori puntuetako bat litzateke: hots, beste berrikuntza-prozesu batzuei irekitzea, eta era berean, berrikuntza-laborategiei, ekitaldiaren ideiatik urruntzen diren kultura sortzeko beste sistema batzuei.

Eta guztiz bat nator Marcosek sektore publikoaz esandakoarekin, hau da, hain handia denez, motel jokaten du, nire esperientziatik ikusirik behintzat, eta jakina, sektore publikoa berrikuntza-ingurune horretatik kanpo ohi dago. “Kultura eta herritarrak” eta gisako programak erne egoten eta gertatzen dena entzuten saiatzen dira, instituzioari horren berri emateko, eta ikusteko nola eraman daitezkeen jokaera horiek, sentsibilitate horiek eta arazo horiek laguntza-deialdietara, oso defizitarioak baitira gauza batzuetan baina tresna erabilgarria izaten segitzen dute, eta saiatu beharra dago deialdiak hobetzen. Arlo pribatuko kultur kudeatzaile aritu nintzenean, egoera horretan ikusten nuen neure burua, hau da, deialdiak aztertu eta prestatu behar nituen, aplikatu ahal izan baino lehen».





Iñigo Osés Maestro (moderatzailea): «Hizpidera ekarritako hainbat gai biltze aldera, duela egun batzuk egon nintzen Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa Gizarte Ekintzaren deialdien aurkezpenean, eta Jordi Grané izeneko filosofo baten ponentzia zegoen sartua. Honako esaldia gelditu zitzaidan gogoan: “egun egin daitekeen gauzarik iraultzaileena lo egitea da”, azpian zekarren azalpen guztiarekin, eta arrazoi osoa zuen. Kontua da sektore barnean urteak daramatzadala entzuten biolinista batek egin dezakeen gauzarik iraultzaileena biolina jotzea dela, eta orkestra batek kontzertu bat ematea... erran nahi baita, egitate artistikoan berean aritzea. Eta orain sortzailea zaren aldetik aurre egin behar diezunean deialdiei, denetarik exijitzen zaizu hori izan ezik. Baina hori ulertzen da Next Generation funtsen eskuliburua hartu bezain laster, zuk Diego hiru hanka horien bidez azaldu duzun bezala: jasangarritasuna, erresilientzia... zer kontatuko diozu erresilientziaz nori eta kultur munduko bati?... Eta azkenik, eraldakuntza digitala. Hau da, ez gara ematen ari biderik edo aukerarik, ez sortzeko, ez sortzeko libre izateko, baldin eta haiek berek aritu behar badute gizarteari erakusten jasangarritasuna edo ekologismoa beharrezkoak direla. Deialdi horietan sentiberatasun pixka bat falta da sorkuntza-askatasunari bidea emateko, zeren, ikusten ari garen deialdietan, uste baitut 35 eta 55 puntu artean daudela proiektu artistikoaren beraren interesari edo kalitateari dagokionez, eta gainerakoak egon behar duzun aparatuko publikoaren esku-hartze txikiak dira. Eta nik gogoeta asko egiten dut horretaz, zeren uste baitut ez dela osasungarria sortzailearentzat, ez dela erreala, eta oso interbentzionista da; baina uste dut aparatuko publikoak interbentzionista izan behar duela alderdi askotan. Azkenik, Europara begiratzen dugu mamiari dagokionez, markatzen dizkiguten bide horiei dagokienez, baina ez formari, zeren hortxe ba baitira plurianualitateak bezain gauza pragmatikoak, edo nola antolatu behar diren deialdiak guztiendako arinak izan daitezzen, bai hanka publikorako, hau da, administrazioetako kudeatzaileak fakturak tikatzen dituzten kontulariak izan ez daitezzen, bai sorkuntzaren alderako, sei aditu etako kabinete bat eskura eduki behar ez dezaten deialdi batera aurkeztuko. Europak oso argi uzten du hori, baina Espainian ez dugu hartzen. Mamiaren zatia bakarrik hartzen dugu, eta hori kezkarria zait. Guztion lana da, nik uste, bai erakundeena, bai gurea, saiatzeari arrazoi eta sen ona jartzen. Nik uste dut egunerokotasunean ikusten diren aspektuetako bat dela, gauza on batzuk hartzen ditugula, eta ez ditugula saihesten saihestu beharko genituzkeen beste gauza batzuk. Eta horrek, egunerokotasunean, asko erretzen du.

Eta mintzagai izan duzuen beste gai batekin lotura eginez, eta kulturaren egitekoa eta aldaketa soziala



hizpidera ekarriz, kultur kudeatzaileen autofikzioari edo egozentrismoari dagokienez, gu beharrezkoak gara, gizarteari ematen aritu behar dugu, gizarteari laguntzen, hura eraldatzen, baina pandemia bat iritsi, eta ia langileak berak suntsitzen ditu. Osasun mentaleko baja asko ditugu, zuzenean ez dakigulako non gauden egun bakoitza, zeren, hain zuzen ere, pandemia garaian eta pandemia ondoko garaian saiatu baikara protokolizatzen testuinguru arraro horretan eta, saiatu ere, gizarteari ematen gure ustez behar zuen guztia. Uste dut horri erreparatu behar diogula, orain dugun testuingurua korapilatsua delako.

Azkenik, “arrakala” hitza apuntatu dut; hor bai, hor zezenak harrapatu gaitu, eta bestea, “landatasuna”. Pandemia baino lehen Espainia hustuaz mintzatzen zen, baina orain nabarmen lausotu da. Hainbat gogoeta egin ditut nondik jarraituko dugun ikusteko».



D.G.: «Gauza garrantzitsu asko atera dira. Izan ere, askotan, sorkuntza industriak ez dira oso sortzaileak, deialdien espirituak hilda daudelako. Eta arazoa da horrek ez duela konponbiderik. Izan ere, eraldakuntza sozialaren kudeaketa egokia izanen bada, norantz eraldatzen garen jakin beharko da, hau da, eraldakuntza eraldakuntza hutsagatik ez da balio bat. Orain, Kieven gertatzen ari dena eraldakuntza sozial bat da: zu hasten zara bonbak botatzen hiri batean eta jendea hiltzen, eta huraxe eraldatzen ari zara, lehenago ez zegoen errealitate berri bat sortzen ari zara. Baina denok jomugan izan behar dugun oso ideal zehatza dagoelako tentazio zuzendari horren ondorioz, deialdiek oso tarte meharra uzten dute sorkuntzarako. Horren ondorioz, izan ere, eskabide guztiak azkenean fake dira. Hau da, zuk proiektu bat duzu, eta eransten diozu inklusioa, jasangarria... dela. Egokitzen dugu, ezta? Eta gero, proiektu guztiek antza dute, eta horrek arrisku zikiratzailea dakarkio sormenari. Zeren, agian, norbaitek kontzertu bat eman nahi baitu eta ez da inklusiboa, baina agian beste balio batzuk ditu edota gauza txarrago bat proposatzen du. Nik sinesten dut artea eta kultura esperimendazio moralerako lurraldea direla; agian zentzua dauka kultur arloan baten bat desafiatzen aritzeak, edo aurre egiteak eroso sentitzen garen leku batzuei, eta hori balio kultural bat da. Eta, hain zuzen ere, horrek irekitzen dio atea sormenari, eta zenbaitetan, kudeaketa egoki batera egokitu behar da, arlo publikotik batez ere, non ideal arduratsu bat proposatzen baita, eta zentzukoa da hori nolabait existitu dadila.



Uste dut hor gero eta sormen apalagoa dugula. Oroimenetik tiraka hasten banaiz, eta pentsatzen badut zenbat antzezlan ikusi ditudan aurten Madrilan, jende biluzia eta oihuka ari dena ikusi dut, gauza hausle gisa; edota pentsatzen badut material birziklatua darabilten zenbat erakusketatan egon naizen, sorta bat ateratzen zait. Eta jende guztiak usten zuen zerbait hiperberritzailea egiten ari zela. Hori izugarri nekagarria da. Landa-munduari dagokionez, itxaropen handietako bat iruditzen zait, zeren, proposamenen ugaritasun horretan, uste dut landa-mundua originalenetako bat dela, eta erarik ospatuenean eta anbiziorik handienarekin hartzen den horietako bat, arras ezezaguna delako. Hortik etor daiteke salbabide bat, nik uste. Eta batez ere, guztiz presazkoa eta bidezkoa da ulertzea gu garen komunitatea ez dela konformatzen berehalakoan ikusgai dagoen horrekin; uste dut, gainera, metropoli handien arriskua dela askoz ere antz handiagoa dutela; jada ez dago ezberdintasunik Paris, New York, Erroma, etab. artean. Hiri handietako gazte urbano guztiak berdinak gara, baina landa-eremua da, beharbada, ezohiko proposamenak dituen espazio gutxietako bat, eta ezohiko gauzetara irekiko bagara, oso ikusle tolerantzia izan beharra dago. Baina kontua da gauza ezohikoen artean, agian onartu behar dugu gauza batzuk “bluf” iruditzen zaizkigula edota gogaikarri zaizkigula, eta bai, nik ikusten dut sormen ekoizpena izugarri esklerotizatzen dela».

M. G. A.: «Guztiz ados nago esan duzunarekin, eta hori lotuko dut ondoren sakon mintzatuko garen komunitate kulturalen eta digitalen gaiarekin; eta ez dakit esperimientua egin edo ez, baina altxa dezala eskua bere proiektu-proposamenean honakoa esan ez duenak: “proiektuaren target-a mundu guztia zen”, eta hori erabat da ezinezkoa. Agian, landatasun berrietatik datozen proposamenak, hau da, hain berriak ez direnak, berriaz bilatu ez den berezko berrikuntza-prozesu batetik abiatzen dira. Prozesu horren bidez, zure xede-publikoa –termino askoz ere ukigarrietan- daukazuen komunitate





hurbilena da; adibidez, nire gurasoak bizi diren Saberoko meatze-ibarrak izan daitezke, Asturiasko meatze-eskualdean; han adinaren batez bestekoa oso zehatza da, kontu sozial eta ekonomiko askoren ondorioz... Agian, hortik abiatzen da egiazko berrikuntza, kultur proposamenei dagokienez. Diegok esan duen bezala, Madrilen proposamen bat egiten duzunean, eta proposamen hauslea egin nahi duzunean, paregabeak izan nahi duten antzeko hogeit hamar erakusketa edo antzezlan ikusten ari zara, eta ez dira paregabeak.

Bestalde, balio sozialari dagokionez, azpimarratu nahi dut, zentzu handia duelako, oso kontu azkarra egin dudala, eta hemen, 28 emakume eta 13 gizon gara, gehi hau egitea ahalbidetu duten langileak eta teknikariak, non uste baitut ia parekotasuna dagoela gizonen eta emakumeen artean; eta hala ere, hemen lau gizon zuri ari gara hizketan. Badakit Xiánek ere Adrianarekin lan egiten duela, eta Adriana gurekin egonen dela... Uste dut aldaketa soziala ere badatorrela emakume-begirada horretatik, begirada feminista horretatik, eta hori kultur arloan batez ere erabat da ukalezina. Uste dut oso zentzuzkoa dela egunero eta era iraunkorrean kontuan har dezagula gure sektoreak begirada femenino eta feminista hutsa duela, eta horrez gain, uste dut horrek zerikusirik handia duela landa-mundua nagusiki matriarkala izatearekin. Hori askoz ere kontu antropologikoagoa litzateke, eta ez nago horri heltzeko moduan; argudiatzeko gauza ez naizen toki labingarrietan sartzen naiz, baina, zalantzarik gabe ezin dut ukatu erabat matriarkala dela gizartea ni sortua naizen lekuan, Asturiasen, edota Galizian gizarte matriarkala dagoela, etab. Eta Espainia barneko kultura atlantikoaz mintzo naiz».



X. R.: «Izan duzuen eztabaidari berretze aldera, nire ustez politika publikoen atzean beti dagoen berrikuntza-ideiak askotan uzten ditu alde batera egonkortasuna, jarraipena eta proiektuak, eta uste dut berrikuntza-ideiak ere eramaten gaituela beti modetara, ezagutza kokatuaz mintzatzera, zaintzez hitz egitera; eta kokatua da, adibidez, nori zuzentzen zaren jakitea, norekin zauden jakitea, eta zaintzak ia heziketako eta oinarrizko bizikidetzako arau bat dira. Orduan, beti izaten dira hiri-inguruneetan asko ikusten diren eta agenda markatzen duten moda horiek: landa-eremuan ez dituzte hainbeste aurreiritzi, hango ekintza ez dago moda horiek hain menderatua, ez dago era kolektiboan sortzen joaten den



eraikuntza horrek hain menderatua. “Kultura eta herritarrak” programan, hura hasieratik ikusi zen logika berezkoa eta originala zuen esparru bat bezala, ezagutza tradizional batzuetan oinarriturik era berritzaileagoan jardun ahal izan zezaten –hori kontraesankorra iruditzen bazaigu ere–, edota modarekiko aurreiritzietatik askeago. Orduan, landa-ingurunea ere desazkunde kultureko politikak aplikatzen erakusten ari zaigu, eta garrantzitsuak dira. Beti ez da gorantz joan beharrik. Une honetako kultur eskaintza handiegia eta berrikuntzak leku hutsetara garamatzate; orduan, desazkunde-ideia hori dago, desikaskuntza-ideia, edo garaikidetasunaz jantzita dauden forma tradizionalen ikaskuntzaren ideia.

Izan ere, uztaileko lehen astean Asturiasen bilduko gara Kultura eta Landatasunak foroa egiteko. Aurten, sektore publikoaren laguntza batzuk izanen dira ardatz, kulturgintza hiriaz bestelako esparruan indartzeko onetsi baitira. Ni ez naiz partaidetza-prozesuan aritu, baina oso prozesu baliogarria izan da, zeren, Autonomia Erkidego guztiekin adosturiko dokumentuak berrikuntza-proiektuak barnebildu baitzituen, hau da, ez soilik ekitaldiei erreparatzeko, baizik eta ideia-laboreak egiteko, kultur proiektuen prototipoak lantzeko, ondare immaterialari arreta emateko edota sorkuntza-prozesuei arreta emateko, uste baitut oso garrantzitsuak direla. Irizpide edo proiektu horiek ere lekua izan dezatela deialdi publikoetan».

Marcos García Alonso

Kultura-kudeatzailea eta -aholkularia. Plataformetarako komunitate digitalekin lotutako estrategien garatzailea. Zuzenbidean lizentziatua eta Kultur Kudeaketan masterra, MBA Europar Batasuneko DIE Programan eta PMP ®. Kultur kudeatzaile eta aholkulari gisa lan egin du AEBetan, Latinoamerikan eta Espainian, hainbat erakunderentzat, hala nola Miamiako Espainiako Enbaxadaren Merkataritza Bulegoko Kultura eta Sormen Industrien Departamentuarentzat.

Aurrerapena:

«...TikToki buruz esateko duzuen gauza txar oro lasai esan iezadazuela, barnetik kontua baita barnetik jakeatzea».

«Komunitate digitalek aukera ematen digute artearen baitaratzetik ateratzeko».


+ Eztabaida-mahaiko partaidea



03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

Kulturarako sarbidea
komunitate digitalaren bidez

Tipos de comunidades



- Acción: comunidades de alguna creencia política, religiosa, etc.
- Circunstancial: comunidades de individuos que encuentran en la misma posición/situación en un momento determinado (emocional, social, económica...)
- Interés: comunidades de interés en relación a una pasión o gusto común
- Lugar: comunidades ligadas por una ubicación territorial común
- Práctica: comunidades que participan en una misma actividad privada o profesional.

Prezi

para que mañana, cuando en pregunt... al ha ido el encuentro, ha habido un chico que l...

comunidad

Raquel Crespo

Kulturarako sarbidea komunitate digitalaren bidez

Egun on. Iruzurgilearen sindromearen etengabeko sentsazioa dut, izan dudan ibilbide profesionalagatik. Txapel batzuen azpian egon naiz: musikari profesionala izan naiz hamar urtez; beraz, ongi ezagutzen dut musikaren industriaren egoera; gaur egun, gainera, industria horretako hainbat proiektu ditut langai, baita irakaskuntzakoak ere; sektore publikorako lan egin dut nazioartean; sektore pribaturako lan egin dut museoetan eta kultur kudeaketa instituzionalagoaren esparruan... eta orain, TikTok erakundearentzat egiten dut lan. Programak ez du halakorik esaten barne-kontuengatik, eta hemen hizlari gisa ari naizelako erabat modu pertsonalean, eta ez dudalako inolako konpainiarik edo erakunderik ordezkatzeko. Baina hori esanik, jakin dezazuela TikToki buruz esateko duzuen gauza txar oro lasai esaniezazuela, barnetik kontua baita barnetik jakeatzea.

Kunak proposatu zidanean komunitate digitalen inguruko tailer honi ekitea eta kulturak horretan guztian duen zereginaz aritzea, edota komunitate horietara kulturaren ikuspegitik sartzeaz mintzatzea, nik neuk galdetu nion neure buruari izanen ote zen onuragarriagoa zuen eguneroko hausnarketan txertatzeko. Aurreratuko dizuet ez dizuedala jardunbide egokien katalogorik emanen, ez eta arrakasta kasuen katalogorik ere; denok dakizue Pradok Museoak oso ongi egiten duela TikToken, primeran;

baina eskura duzue mugikorrean, eta ez du zentzurik nik hori azaltzeak. Definizioen tranpan erori naiz, uste baitut garrantzitsua dela mugatzea zertaz ari garen komunitateaz mintzo garenean, komunitate digitalaz mintzo garenean eta komunitate digitalaren barneko kulturaz mintzoi garenean. Publikoetz, ez-publikoetz eta arretaren ekonomiaz ere hitz egin dugu; nola txerta dezakegun hori bai gure egunerokotasunean edo bai gure diskurtso praktikoan gure lanbidearen garapenean. Zuzena eta laburra izaten saiatuko naiz.

Zer da komunitatea?

Nire buruari galdetzen diodan lehenengo gauza da zertaz hitz egiten dugun komunitate bati buruz ari garenean. Gertatu izan zait definizioak bilatzen nituenean eta terminoa kontzeptualki ulertzen saiatzen nintzenean, konturatzen nintzela ni kulturaren definizio bat bilatzen saiatzen ari nintzela. Eta beti da arlo zingiratsu eta korapilatsua.

¿Qué es una comunidad?

1. Conjunto de personas que viven juntas bajo ciertas reglas o que tienen los mismos intereses ("una comunidad de propietarios")
2. Grupo social del que forma parte una persona.

"Las comunidades humanas se organizan generalmente en torno a un propósito, interés y/o rasgo común que es variable (idioma, costumbres, valores, etc.) Sus miembros además suelen compartir pasiones, necesidades o deseos y de su asociación se deriva, de algún modo, en una mayor posibilidad de alcanzar dichos propósitos. Dentro de las comunidades se producen relaciones entre sus partes, que pueden llamarse relaciones comunitarias."


Definizio batzuk lagungarriak zaizkit diskurtsoa eraman nahi dudan lekura eramateko, baina definizio horietako bat hau da: arau jakin batzuen pean elkarrekin bizi diren edota interes berberak dituzten pertsonen multzoa. Eta jabekideen komunitate baten adibidea eman dut.

Komunitatearen bigarren definizio gehigarri bat izan daiteke pertsona bat kide duen gizarte-talde bat dela. Eta sinetsi nahi dut hori kulturaren definizioari buruz denok entzun ditugun alderdi kulturei edo alderdiei dagokiela. Zuekin partekatu nahiko nituzkeen termino batzuk azpimarratu ditut: asmoak, interesak, ezaugarri komunak, era askotakoak izan daitezkeenak; adibidez, hizkuntza, lurraldea, erlijioa edo balioak, partekagarriak direnak. Komunitatea ez da ulertzen partekatzeko zerbait ez badago eta bi norabidekoa ez bada, eta horrek garrantzia du eta zuek gordetzea nahi dut ondotik mintzagai izanen dudan konturako. Horrek, gainera, horizontaltasun-sentsazio handiagoa izan ohi du hierarkia-sentsazioa baino, edo hala izan beharko luke, behintzat. Jatorrian, behintzat, komunitate bat horizontaltzat har daiteke, eta ez hierarkikotzat.

Zer da komunitate digitala?

Aurkitu dudan definizio bat honako hau da: “interes edo leku komun edo behar batzuen inguruan antolatutako taldeak eta erakundeak, eta haien elkarrekintzak eta loturak ingurune birtual eta zibernetiko batean sortzen dira”; deitu gehien gustatzen zaizuen terminoarekin. Lurreratzeko garrantzitsuak diren hiru puntu azpimarratu nahi ditut: komunitate digitala espazio fisiko eta birtual gisa; ez bakarrik espazio birtual gisa, eta hemen

bertan adibide zoragarri bat daukagu, hau da, nagusiki espazio fisikoa dugu, baina baita birtuala ere, YouTube plataformaren bidez zuzenean ari garelako; komunitate digitala kide izatearen sentimendu gisa, eta hasi baino lehen esan dugun bezala, sektore gutxik dute kide-tza- eta militantzia-sentimendu handiagoa kultur eta sorkuntza arloak baino, ikuspuntu guztietatik; hori oso ongi dago, beti ez delako horrela; eta, komunitate digitala tresna gisa, (askotan horixe baita buruan darabilgun definizioa norbaitek komunitate digitalak sortzeaz edo plataformetan egoteaz hitz egiten duenean, hau da, komunikazio digitaleko planak sortu behar ditugula, hedabide sozialetan aritu behar dugula, etab. Uste dut hiru hurbilketa horiek lagungarriak izanen zaizkigula gaiak hobeki kontzeptualizatzen, gure egunerokotasunerako beste behin ere kokatzen gaituztenak.



Kultura. Azpikulturak.

Nahita bilatu dut kulturaren definizioa, hari gisa erabiltzeko. Kulturaren hainbat definizio daude, eta ziur aski mundu guztiak

izanen du kulturaren definizioa, orain mundu guztia Ukrainako gerran aditua den bezala. Ez nago bereziki eroso definizio itxiekin, baina haria definizio holistikoa batekin bilatu dut: kultura da informazioa, gauzak eta ohiturak egiteko moduak hedabide sozialen bidez transmititzea da, belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak, dela familia- edo gizarte-loturengatik, etab.

Cultura. Subculturas.

Una definición holística de cultura: la transmisión de información, modos de hacer las cosas y costumbres a **través de medios sociales** (de padres a hijos, entre hermanos, entre amigos o en la escuela).

Forman parte de una subcultura un grupo de personas con creencias y comportamientos que los hacen **diferenciarse** de la cultura predominante de la que también son parte.

Uste dut garrantzitsua dela “hedabide sozialen bidez” nabarmentzea, zeren berriro ere sare eta plataforma sozialei buruz hitz egiten dugunean, nolabait terminoa lapurtu baitigute, eta lotura sozialak eta sare sozialak plataforma batzuek bereganatu dituzte. Plataforma horiek erabaki dute hori dela gauza soziala, eremu birtualean, eta soziabilitate modu asko daude.

Azpikultura terminoak zentzu handia du, eta horretaz baliatzen dira digitalaren esparru hain etereo hori osatzen duten eragile guztiak. Bereizten gaituenaz edo gu bereizgarri egitea nahi dugun horretaz hitz egiteko terminoa da, edo nola sentitzen

garen gu bereziten garenean gustuei, interesei, sinesmenei, arlo komunari eta orokorrari dagokienez. Eman zaigun kultur aterki baten azpian gaude, baina (eta hori nerabezaroan argi dago), mundu guztiak du ezberdintasun bat: niri asko gustatzen zait erregetoia eta beste norbaiti hiriko musika, eta beste bati makramea. Eta guztiak dute banaka definitzeko joera, baita arlo digitalean ere, zeren testuinguru digitalak ere lagundu egiten baitu, interesatzen baitzaio bertikalen arabera bereiztea eta mugatzea. Eremu digital horietan bertikalizazioaren kontzeptua erabiltzen da: dena bertikaletan banatuta dago, eta interesa dugu kirol bertikalean edo entretenimendu bertikalean, eta horren barnean sartzen da arte eszenikoen edo arte garaikidearen azpibertikala. Ez legoke gaizki, bide batez, arlo publikotik ere egiten hastea. Artetik esateko, jabetzearen zale amorratua naiz; “tradizioa ez den guztia plagioa dela entzun dut, eta plagioko gauza asko tradizio bihurtzen da”. Uste dut denok erabili dugula hori gure alde. Uste dut Fernandez Mallok (Borges-en liburu batekin, alargunarekin, etab. arazoak izan zituen idazlea) ikuspegi horretatik hitz egiten zuela “apropiazionismo” terminoaz: ezer ez da guztiz originala, eta hobe dugu hori barneratzea eta gure alde erabiltzen saiatzea. Beraz, alde guztietan




Agustín Fernández Mallo

03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

eraz, alde guztietan dago patroï bat, eta patroï horretan lan egin behar dugu pantailari lotuta dagoen jendearen % 30ek, agian, zer edo zer aurkitu ahal izateko gure programazio-proposamen kulturaletan, hots, heltzeko moduko zer bait, horrek berezi, paregabe eta desberdin sentiarazten duelako.

Eta bururatu zait esatea: noraino dakite nitaz plataforma digitalek? Noraino koka nazake plataforma batek komunitate digital baten barnean, niri gauzak saltzeko gogoz, jakina? Ariketa hau egin dut nitaz: zer daki Googlek nitaz. Denok egin dezakezue gauza bera bilaketetan oinarrituta, hau da, urrats bat gehiago ez egiteagatik onartzen dituzuen cookie-etan oinarrituta.



kusi dut 250 bat ezaugarri zituela nitaz, nik hari erakutsitakoak, baina ez zela guztiz zehatza. Googlek uste zuen interes handia nuela gaueko bizitzan eta jatetxeetan, berrikitan aita izan naizenean; auto marketan, autoa duela urtebete erosi nuenean,

eta ez zaizkit eskaintza berriak ezertarako interesatzen. Bai, egia da txirrindularitzan aritzen eta interesatzen zaidala eta online erosten dudala; hor bai asmatu duela. Edo umetxoei buruzko informazioa; pentsatzen ahal duzue zergatik. Zeren dena Googlen bilatzen saiatzen baikara, erantzun magikoak aurkituko bagenitu bezala. Eta arropa markak; eta horrek ere ez nau definitzen, eta, hala ere, uste dut google ez zela aurkitzen ari egiazko zer interes ditudan. Zer musika mota gustatzen zaidan, non kontsumitzen dudan, zein den ikusi dudan azken erakusketa... zer asmo dudan udarako. Beraz, askotan interes horiek ez daude estalita, nahiz eta baietz uste dugun; nahiz eta denok esaten dugun norbaitekin watsap bidez hitz egiten dugunean eta motozerra esaten dugunean, gero motozerra baten iragarki bat agertzen dela Internet berriro irekitzean.

Garrantzitsua da jakitea hain urrun ditugun aparatu eta estrategia horiek ere, hala nola segmentazioa, kontrola, besteek gu nolakoak garen ederki jakitea, ez direla horrelakoak. Arretaren ekonomiak zentzua du erakarri nahi ditugunak ezagutzen ditugun heinean, eta gaur egun oraindik ere, nahiz eta zuek baietz uste duzuen, kultur erakunde bat ez dago hain urrun plataforma teknologiko batetik bere publikoak ezagutzeari dagokionez; are gehiago zuen lana zenbat eta tokikoagoa den, zeren aukera gehiago izanen baituzue zuen erabiltzaile mota ezagutzeko, profil bat marrazteko, publiko berriak esploratzeko, zuen publikoak zeintzuk ez diren zehazteko, publiko berriak erakartzeko, gazteak izan edo ez hain gazteak izan. Adin ertaineko eta hirugarren adineko pertsonak ditut gogoan, askotan programazioetan eta estrategietan kontuan hartzen ez direnak.

Uste dut ez dugula amore eman behar aitzakia gisa, hau da, txikitik ari zaretenok, edo tokikotik, edo egunerokotik ari zaretenok uste duzue ez duzuela behar adina tresnarik ikertzeko eta gauzak proposatzeko.

Erretratu globala egin dut puntu interesgarri batzuk ateratzeko:

- Rasgos/intereses comunes
- Relación entre pares
- Vínculos afectivos (pertenencia)
- Nivel de participación (roles)
- Medios sociales
- Necesidad de diferenciación

- Komunitate baten barnean, digitala izan ala ez, beti daude ezaugarri edo interes komunak
- Pairen arteko harremana dago, horizontala edo bertikala izan.
- Lotura afektiboak daude. Zerbaiten partaide izatearen sententzia, mundu guztiak sentitu behar du zerbaiten parte, orokorra izan, edo azpikulturakoa izan.
- Partaidetza mailak daude: ekoizten duen jendea, kontsumitzen duen jendea, “prosumidore” terminoa dago,

ekoizten ari denik ez dakien jendea baina ekoizten ari dena. Ez-erabiltzaileak daude. Rol mota asko daude.

- Hedabide sozialak daude. Eta ez dira digitalak bakarrik, berriro diot. Kafeak ere badaude, otordu uneak. Ea etorkizunean horrelako ekitaldiak kafe gelaren inguruan sortzen diren, mikrofonoekin edo mikrofonorik gabe berdintasunez hitz eginez, eta mundu guztiak, eskua altxatu gabe, elkarrizketa moduan, bere ideiak azaldu ahal izanen dituen formatu batean, edo norbaiten hariari jarraitzeko, kasu honetan ni izan ala ez. Harremanek eta elkarrizketek askoz ere interes handiagoa dute, batez ere harremanak, aliantzak eta lotura afektiboak sortzen diren sektore mota horietan, eta, beraz, komunitatea sortzen den horietan, ezen norbaitek hitz egiten duen eta besteek bakarrik entzuten duten foro batean baino.
- Eta azpikultura bertikalen inguruan bereizteko beharra, etab.

Komunitate digital motak

Horiek guztiak definizio partzialak dira. Ez hartu hitzez hitz, komunitate mota askoz gehiago daudela pentsa baitezakezue. Lurreratze hutsa da. Baina, zertan oinarritzen dira?

- Ekintza: edozein talde plataforma sozial batean, sinesmen politiko edo erlijioso batengatik, pertsonaia publiko batengatik...
- Zirkunstantziala: seme bat badut eta haurtzaindegiko gurasoen wasap batean sartzen banaiz. Emozionala da,

aldi baterako... Espainiatik kanpo bizi izan nintzenean, eta gero, itzuli nintzenean, nire testuingurua aldatu zen, eta nire komunitatea ere bai; eta badira denboran zehar mantentzen diren beste komunitate mota batzuk, nire haurtzaroko lagunak bezala.

- **Interesa:** bereizten gaituzten interesetan soilik oinarritutako komunitateak. Bizikleta gustatzen bazait, horretaz hitz egiten den foroetan egongo naiz, edo eduki mota hori bilatuko dut, modu aktiboan edo pasiboan parte hartzeko.
- **Lekua:** lurralde hutsa. Zuetako asko KUNAKo bazkideak zarete, eta horrek definitzen zaituzte hemen egoteko.
- **Jarduera:** pribatua edo profesionala.



Galdetuko diozue zuen buruari: ba al dago elkarren artean nahasten diren gauzak? Hain zuzen ere, komunitate digital horien definizioetako edo ezaugarrietako bat da ez direla

konpartimentu estankoak, elkar nahasten diren komunitateak direla. Interes izugarria izan dezakezu arte plastiko edo eszenikoetan, eta, gainera, horren profesionala izan zaitezke.

Arestian esan dudan bezala, uste dut sektorea dela gure pasioa gure lanbide bihurtzen delako adibide garbia, kasurik onenean. Batzuetan horrela bihurtzen saiatzen gara eta ez dugu lortzen.

Plataforma digitalak

Hori da dauden komunitate moten hanka; eta bigarren hanka da zer plataforma digital mota dauden. Hemen beste behin esan dezakezue: noski, baina badaude plataforma sozialak edo entretenimendukoak, hezitzaileak, musikalak... Baina, halaber, badira ordaintzeko plataformak, banku-plataformak, plataforma digital gisa definitu daitezkeenak. Shopify produktuak erosteko eta saltzeko plataforma bat da.


Bideo hau Youtuben dago eta bertan ikusten da nola eboluzionatu duten denboran zehar gizarte-plataformek edo edukien plataformek, 2022ko apirilera arte, erabiltzaile globalen kopuruan. Bideoa 2006-2007an hasi eta ia ez da plataforma horietako bat bera ere agertzen. Bazegoen MySpace, etab.



Plataforma digitalen bideoa

03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

Horra hor beste ezaugarri bat, aldakortasuna eta denak hauskor ematen duela. Izan ere, plataforma hauetatik, zenbat ezagutzen dituzue?



Inork entzun al du Clubhouseren booma duela urtebete? Bba al daki inork hura zer den? Clubhouse AEBetan jaiotako zerbait izan zen, entzutezko arloaren eta ikusizko arloaren arteko bereizketa xede zuen formatu bat, elkarrizketa gelak ziren. Gai jakin bati buruzko elkarrizketa-gela bat duen app bat da, mota guztietakoa, gehienbat profesionala, eta edonor sar zitekeen denbora errealean, eta ez zen grabatzen. Pandemia garaietan, jakina, igoera itzela basatia izan zuen. Igo zen bezala jaitsi egin zen. Gaur egun, esan dezagun app-aren abandonu-tasak hiru digitu dituela eta desastre hutsa dela, eta coaching egiten den plataforma bihurtu dela, eta denek esaten dizute nola izan daitekeen ona Clubhouse bat, benetan Clubhousen inor ez dagoenean. Hori bezala, beste asko.

OnlyFans jarri dut asmo guztiarekin, bere burua eduki-plataforma gisa definitzen duelako. Ez zen jaio orain ezagutzen den bezala, baizik eta sortzaileek, Patreon gisa, edukia igotzeko aukera zuten, harpidedun batek, hau da, eduki horretan interesa zuen norbaitek, hileroko edo astero harpidetza bat ordain zezan. Gero, denok dakizuen edukira jo du.

Twitch dugunok badakizue zer plataforma mota den. Facebookek hanka bat du, Facebook gaming izenekoa; gaming-ekin zerikusia duen guztia beste modu batez garatuta dago komunitate digitalei dagokienez. Trovo..., ezagutzen duzue? Twitchen lehiakide indartsuenetako bat da, made in Spain. Likee dago, eta bertan hamabost urtetik beherako guztiak daude, TikTok plataformaren antzeko plataforma bat da. Triller antzeko beste bat da... Esan nahi dudana da badakidala eta denok ohartu behar dugula ia egunero agertzen eta desagertzen direla komunitate digitalak sortzen dituzten plataformak. Horrek ez du esan nahi zuen kultur erakundearen edo hau kultur proposamen hau edo hura garatuko duzuen proiektuaren komunikazio-planean plataforma horiek guztiak sartu behar dituzuenik, ezinezkoa delako eta ez duelako inolako zentzurik. Agian ez duzue bat bera ere erabili behar, eta agian zuen komunitate digitalik onena Telegram talde bat da, edo hilean behin elkartu behar duzue kultur etxekeo tabernan kafe bat hartzera.

Zertarako balio dute komunitate digitalek?

Zer diren edo zer izan beharko luketen gogoetagai.

- Gure kideak mota guztietako interesen arabera ezagutzeko aukera ematen dute

- Kideak erakartzeko, atxikitze, fidelizatzeko eta sustatzeko aukera ematen dute, baita joaten uzteko ere, gure eginkizuna aldatzen dugunean
- Egiazko informazioa emateko gai dira. Inor ez da norbera baino hobea egiten duena kontatzeko eta, gainera, 1:1, denbora errealean; beraz, komunikazio zuzena
- Zure proposamenak dagoen eskarira egokitzeko eta haren inguruan ardazteko aukera ematen dizu. Ez da gauza bera udako eskaria eta neguko eskaria, pandemian zegoena edo pandemia ondoko uneetan zegoena, edo 500 biztanleko herri batean edo hiri handi batean dagoena. Garrantzitsua da zure komunitateak zer interes dituen jakitea.
- Artearen baitaratzetik ateratze aldera. Musikari profesionala izan naiz hamar urtez, musikari afizionatua izaten jarraitzen dut, eta oso ongi ezagutzen dut zure proiektu artistiko edo kultural batez maitemintzearen egoera hori, eta ez duzula gaitasunik aurrez aurre duzun hori maitemintzeko, ez baituzu gaitasunik azaltzeko nola sentitzen duzun zuk, oso zaila baita maitemintze bat azaltzea, eta askotan nola haserretzen garen ulertzen ez gaituztenean. Gure ustez, modurik onenean azaltzen saiatzen gara, eta inork ez du baloratzen proiektua gure ustez nola baloratu behar den eta abar. Komunitate digitalek aukera ematen digute paradigma horretatik ateratzeko, kanpoan zer dagoen ikusteko. Mundu honetan, ikuspuntu adina pertsona dago eta interes adina pertsona ere, eta ohartu behar dugu erresilientzia ere izan behar dela txertatu beharreko ezaugarrietako bat.
- Ikasten dugun bitartean geure burua birpentsatzeko. *Work in progress*. Hau ez da inoiz amaitzen, ez da lineala, ez du hasiera eta amaierarik. Proiektu bat deialdi publiko batera aurkezten denean, hasiera, garapena eta amaiera izaten ditu, eta normalean amaiera ere ez da ongi zehaztuta egoten, zeren helburu edo adierazle horiek ere ez baitatoz bat gure beharrekin. Ebaluazio prozesurik gabeko deialdietan lan egin dut. Beraz, zuk laguntza eskatzen zenuen; gero, ongi ateratzen zen gutxi gorabehera, zerga-mailan justifikatuz dirua zertan gastatu zen, baina ez zirudien inori interesatzen zitzaionik diru hori zuzen edo gaizki erabili ote zen. Zorionez, hau aldatzen ari da.
- A/B testak egiteko. Funtsean, saiakuntza/errorea da. A jaurtitzen dut eta nola funtzionatzen duen ikusten dut, eta B jaurtitzen dut eta nola funtzionatzen duen ikusten dut. Konparazio bat ikusten dut, era askotako erabakiak hartzeko aukera ematen didana, programazioari dagokionez, sarrera baten prezioari dagokionez, publiko motak nola erakarriko ditudan, plangintza askoz ere luzeagoari dagokionez. Politikaren arlorako ere modu bat da kultur kudeaketatik egiten den lan ukiezina ukigarri egiteko, erabakimena duenari eramateko eta lan-ildo bati buruzko ondorio bat atera dudala erakusteko, bestela zailagoa izanen bailitzateke hori argudiatzea.
- Eta, batez ere, entzuten ikasteko. Nahiz eta denok esaten dugun gure erabiltzaileei entzuten diegula, egiazki ikasi behar dugu entzuten eta, ondoren, horren inguruko erabakiak hartzen. Kontua ez da entzutea entzuteagatik, baizik eta modu proaktiboan entzutea, gauzak aldatzeko nola-halako bokazioarekin edo asmoarekin.

Nola egiten da kultur sektoretik?

Kultur sektorearen barnean, komunitate digitalak definitu genitzake, hots, hiru zutabetan oinarriturik esparru horretan estrategia garatzen ari direnak. Alde batetik, instituzioak, publikoak zein publiko-pribatuak, eta profesionalak, banakoak edo enpresak, zeinek, plataforma digitalen edo komunitateak sortzeko estrategia digitalen bidez, beren entzuleekin eta erabiltzaileekin komunikatzeko aukera zuzena ikusten duten. Arlo tradizionalatik pixka bat jasotako kontzeptu batekin, hau da, lehen prentsa-ohar bat ateratzen zenuen eta mundu guztiak zure historia zabaltzea espero zenuen, eta uste dut hein handi batean arlo instituzionalak horretan dirauela. Orain aholkularitza lanetan ari naiz administrazio publiko batentzat, non atzo oraindik ere esan zidaten web-orri bat nahi zutela eta web-orriaren barnean streaminga egin ahal izatea, eta kultur agenda guztia hor egotea, baina horretarako goizeko zazpiak baino lehen eguneratu behar da, badagoenean hori bera egiten duen lurralde bereko beste administrazio publiko bat... Hau da, egote hutsez egon nahi izatea edo egite hutsez egin nahi izatea, beste leku batzuetan funtzionatzen duela dirudielako, ba ez du funtzionatzen. Izan ere, agian ez da erakunde horien lana horrelako edukiak sortzea. Eta, batez ere, eginez ikasten dute, eta, era berean, denok ikusi duzuen zerbait da, hots, baliabide ekonomikoak eta langileak direla eta, komunitate digital horien ardura hartzen duten pertsonak egin ahala ikasten dute. Eta ez dago erabat gaizki; beste edozein metodo bezain baliogarria da, baina egia da saiakera/errore hori lekualdatu egiten dela, eta ziur denok dituzuela honelako adibideak: hau da, gauza batzuk horrela egin

dira baina, baina agian gaur egun beste modu batera egingo lirateke, etab. Hori instituzioaren aldetik, modu zabalean ulertuta.

Gero partikularrak ditugu. Termino “prosumidore” hori; orain azpimarratu digute erabiltzaileak ez direla pasiboak, baizik eta kontsumitzaileek, aldi berean, edukia ekoizten dutela, eta, orduan, profil hori pixka bat lausotzen da. Eta sortzaile terminoa galderara ekartzen dut. Zer da edukiaren sortzailea eta nola definitzen da? Zergatik definitzen da gaur egun definitzen den bezala? Gero, berriro ekingo diot horri, baina eman dezagun partikularrek -profesionalak izan edo ez-profesionalak izan- nolabaiteko edukia sortzen dutela plataforma horietan, eta haien kideko komunitateak sor ditzaketela.

Hirugarrenik, erabiltzaile pasiboak, berez pasiboak ez diren arren. Informatzen dira, prestatzen dira, entretenitu egiten dira. Gai jakin batean interesa badut, norbaiten streaminga fondoan jarriko dut, edo talde edo foro batean sartuko naiz... foroak oraindik ere badirelako. Suposatzen da erabiltzaileek ere edukia sortzen dutela, nik foro batean mezu bat jar dezakedalako, baina esan dezagun nik eman dezakedan balio-edukiaren ratioa desberdina dela kontsumitzen dudanarekiko; horregatik ez nuke neure burua eduki-ekoizletzat hartuko, baizik eta eduki horren kontsumitzailetzat edo erabiltzailetzat.

Horra hor kultur sektorearen barnean definitu genitzakeen hiru hankak.

Baina zer egiten du instituzioak?

Hau 2021eko azaroko argitalpen bat da [ez da irudian ikusten], hots, kultur kudeaketari buruz eta gertatzen ari denari buruz diren ugarietako bat, nola definitzen garen, kasu azterketak,

etab. Askotan, oraindik ere horretan gabilta: “Komunikazioa sare sozialetan: zein da estrategiarik onena zure museoarentzat?”, “Komunikazio Plana 2.0, nola egon twitterren eta Facebooken?”. Adibide guztiak argitalpen berekoak dira. “Kultura irekia ordutegirik eta egutegirik gabe, sare sozialetako museoa”. Ez dut esanen horrelako gauzak gaizki daudenik, esaten dut horretan gaudela; eta hara, esperientziak esaten dit errealitatea beste alde batean dagoela. Ez dakit hemen ordezkari politikorik ote dagoen edo ez; egizue ihes halako edo holako kultur erakundea digitalizatu nahi dugun milagarren planetik, baldin eta digitalizazioa bada profil bat irekitzea ez dakit zer plataformatan. Kontseilu hutsa da; baina, mesedez, hartzazue.

Eta zer egiten du kultur sektoreak?

Definizio orokorra da hori, baina bada salbuespenik, denok dakizuen bezala. Profil ofiziala dago: zenbat eta plataforma gehiago, hobe, egon beharra dagoelako; norabide bakarreko edukia eta zer eginen dudan kontatzen dut, datorren hiruhilekoko programazioa, 15 egunez itxiko dudala edo hiru sarrera ikuskizun baterako zozketatuko ditudala. Baina, bat-batean, 50 pertsonak esaten dizute lehengoan kontzertu batera joan zirela eta sarrerako neska ez zela oso atsegina izan, edo sarrerak online erosteko prozesua txar-txarra dela, ez duelako funtzionatzen. Eta ez dago horretarako erantzunik, hor horma bat dago; inork ez daki irakurtzen ote gaituzten, irakurtzen ez gaituzten, inork gidatzen ote duen, hurrengorako oharra hartzen duten edo zer egiten dugun. Bikaina da zuk X followers izatea, baina hori zenbaki bat besterik ez da, ez badago komunitate eta kide izatearen sentimendua sortzen duen komunikazio bat.

Jarrera erreaktiboa baino ez dago; azkenean gauzak polemika dagoenean bakarrik egiten ditugu, hala nola aire-lineak eta konpainia telefonikoak, hau da, zerbait gertatzen denean, communityak agudo esaten du: “idatzi pribatuak eta konponduko dugu...”. Kultur ekipamenduetan ere badago jarrera erreaktibo hori, kritikak daudenean, eta kritikak izan badira; izan ere, kultura-proiektuen izaeran bertan kritika hori sustatzea dago. Eta oraindik ere gertatzen da, eta herrialde honetako museo-erakundeen barnean askotxo gertatzen da. Egote hutsagatik egoteak ez du zentzurik. Egotea ez da nahitaezkoa, sarrerak Internet bidez saltzeko betebeharririk ez dagoen bezala. Egote hutsagatik egotea ez egotearen parekoa da. Zuen proiekturako finantzaketa bilatzen ari zaretenean, ez zaitezte behartuta sentitu hori guztia sartzera berrikuntzaren edo gizarte-aldaketaren zati gisa, egiazki kontrakoa baita.

Gero errealitatea dago, hau da, batzuetan ezin da egon, ez baitago baliabide pertsonalik edo ekonomikorik, edo ezjakintasunagatik, ezinezkoa delako denok guztiaren egunean egotea, egunak ez baitu behar adina ordu horretarako; eta

espezializatu beharra dugu. Errealitate hori ezin dugu alde batera utzi.

Eduki-sortzailearen kontakizuna

Hona hemen beste galdera batzuk. Nor da neska hori? Inork ezagutzen du? Cristinini da. Irismenik eta komunitate hispaniarrik handiena duen streamerra da Twicht-en; LaSextako “Zapeando”ko kolaboratzailea da, Daznekin lan egiten du kirol emanaldietan, eta offlinen hasi



03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

zen kazetari gisa komunikabide tradizionaletan. Eduki-sortzailea da? Eduki-sortzaile gisa definitu daiteke?



Eta nor da neska hau? Najwa. Artista, musikaria eta aktorea, hurrenkera horretan. Musikaritzat jotzen du bere burua aktoretzat baino gehiago, baina denok ezagutuko duzue ziurrenik La casa de papel lanagatik, baina Los amantes del círculo polar gomendatzen dizuet, haren filmik onena baita. Eduki-sortzailea da?



Nor da mutil hau?

Ivan Ferreiro. Artista garrantzitsua, herrialde honetako musikaria; 90eko hamarkadan Los piratas izeneko banda bat zuen, galiziarra. Izan ere, musikaria da, eta 2020ko apiril edo maiatz aldean, pandemiaren murrizketen erdian, bera Clubhouseko fanatiko bat zen; gauero ekiten zion. Imajinatu zer den Ferreiro zure idoloa izatea eta gaueko hamabietan berarekin hitz egin

ahal izatea berdinetik berdinerara, adibidez bere bizitzaz. Mutil horri bururatu zitzaion Las Rozasen emandako kontzertu batean, sarrera presentzialez gain, Clubhousen emango zuela kontzertua, eta 5.000 lagunekoa areto batean. Ez zuten txartelik ordaindu, egia da, baina komunitate digital bat sortu zuten haren inguruan, eta jende horren ehuneko batek hari jarraitu eta kontzertua plataforma berritzaile baten bidez segitzeko esperientzia agian bakarra eta paregabea izan zuenak gero tiket bat eros zezakeen hurrengo kontzerturako edo gutxienez hura egiten ari zenaren arrastoari gehiago jarraitu. Eduki-sortzailea da?

Eta nor da hau? Ibai Llanos. Eduki-sortzailea da?



Zergatik bereganatu du eduki-sortzaile mota jakin batek eduki-sortzailearen eta eduki-sortzailekidearen kontakizuna? Gehienbat digitala eta bere burua eduki-sortzailetzat definitzen duena. Hau da, zuek ikusten duzue edozein pertsona Instagramen 20.000 followerrekin, argazki gutxi-asko interesgarriak igotzen dituena, baina bere burua eduki sortzailetzat duena. Jada influencer hitza gaitzetsia dago eta ez dute izen hori nahi, eta denek diote eduki sortzaileak direla. Zergatik ez dira eduki sortzaileak Ferreiro edo Nawja?, zergatik onartu behar dugu eduki sortzuntza terminoa jatorrian ez zirela musikariak, juglareak, artistak, idazleak, ahozko kontatzaileak, hots, milaka urtean edukia sortu duten horiek guztiak, zertarako

eta gainerako jendeak eta komunitateak gida edo bide bat izan dezan, edota zorionaren bilaketa bat? Zergatik galdu du kulturgintzak guda hori, hau da, eduki sortzaileez ari garenean, gu guztioi gure irudimenean txinparta piztu egiten zaigu eta Ibai agertzen zaigu baina ez, ordea, gizartean askoz ere pisu handiagoa duen Najwa edo beste edozein artista, aktore, idazle, antzerkigile mota.

Ez dut inola ere onartu nahi Cristinini soilik eta Ibai soilik dela eduki-sortzaile bat; bai horiek ere badira. Uste dut gutariko bakoitzak, gure roletik, hasi behar dugula defenditzen nor diren jatorrizko eduki sortzaileak, hots, arestian aipatu dugun jende hori guztia. Hemen erreplikak eta kontra-erreplikak egin daitezke.

Komunitate digitalaren eginkizuna ulertuko badugu, funtsezkoa da:

1. Erabiltzailea izan behar duzu. Lankide batek esaten zuen; kontuz landatasunarekin, nire haurrak TikToki engantxatuak daudelako. Ez da bateraezina landa-ingurunean egotea, landa-ingurunean oinarritutako ekimenak lantzea, eta plataformen erabiltzaile superaktiboak izatea. Are, nik esanen nuke abantaila ere badela, haien eskura tresna gehiago dituztelako; beste kontu bat da horrek beste gauza batzuk gozatzeko aukera galaraztea. Baina uste dut ez duela ezer txarririk. Adibidez, Vetusta Morlaren diskoa TikTok Españan estreinatu zen, eta ez dakizue zenbat jendek ez zuen sekulan imajinatu Tiktok entzutea zuzeneko bat entzuteko; ez 15 urteko jendea, ezta gutxiagorik ere; Vetusta Morlaren erabiltzailearen profilak ez du 15 urte. Erabiltzailea izatea

ez dago gaizki; plataforma guztiak ez ulertzeagatik larritzea oso gaizki dago.

2. Ulertu behar dira bai komunikazio-kodeak bai bakoitzaren berariazkoa dena. Komunitate mota horiek kodeetan oinarritzen dira; kontua ez da tresna, baizik eta nola erabiltzen den. Hainbestetan erabiltzen den adibidea ekartzearren, hots, Pradoko Museoa zeinen ongi egiten ari den bere komunikazioa plataforma honetan eta hartan. Ulertu behar da barrenetik zein formatan komunikatzen den, eta komunitate bat zein koderen pean mugitzen den. Lehen aipatu ditugun streamer horietako baten txatean sartzen bazarete, kode batzuk dituzte, eta oso barnean ez bazaude, agian ez dituzu ulertuko. Esaldi eginak ere badituzte, eta parte aktiboa bazara bakarrik ulertzen dira.
3. Tresnak erlazioak ezartzeko ulertu eta aplikatu behar dira. Ez bakarrik komunitate guztietan profila izatea; edota sare sozial nagusietan profilak ditudala esatea, eta miniaturak zuen proiektuei buruz egiten den (edo ez) komunikazio digital orotan jartzea. Proiektu batek ez du zertan komunitate bakar bat eduki, eta komunitate horiei modu desberdinetan dei egiten zaie. Udal musika eskola baten arrakasta kasu bat dago Asturiasen; oso gauza erraza egin du, hain da begi-bistakoa, inori ez zitzaion bururatu. Biztanleriaren ehuneko bat adinekoa da, biztanleria piramidea nahiko heldua da, seniorra, eta inori ez zitzaion bururatu Musika Eskolak eguneko zentroetara joan behar


03 Kultura eta komunitate digitala: Marcos G^a Alonso

zuenik bere jarduera lurralde horretako biztanleria-sektore handienera eramateko. Hainbat arrazoi dela medio izan da arrakastatsua; lehenik, Eskolaren beraren lan soziala bere hedapena eta bere jendearekiko harremana zen, udal erakunde bat den aldetik, eta beraz, publikoa den aldetik. Bigarrenik, horri esker, adin ertaineko edo hirugarren adineko erabiltzaileengan musika-tresna bat estudiatzen ikasteko interesa sortu delako edota beren herriko musika jardueretara edo jardueretara joateko interesa. Holako jarduerak lehenago ez zituzten bere egiten edota ez zituzten ulertzen. Eta hori digitaletik kanpo izan da. Musika Eskolako koordinazioan ari den batek ulertu du horrelako gauzak egin behar direla erabiltzaile-komunitate bat osatuko bada. Gero ikusiko dugu ea horren bidez betetzen diren norbaitek ezartzen dizkion helburuak; baina, jakina, gauza ukigarria da eta horren defentsa edonoren aurrean egin daiteke.

4. Berdinen arteko harremana dela jakin behar duzu. Ez da erakunde-erabiltzaile harremana. Hasieran, harreman horizontalei buruz hitz egin dut, eta uste dut komunitate digitalei dagokienez, ahal den neurrian berdinen arteko harremanei buruz hitz egin behar dugula, alde bikoak ere izan behar dutelako ahal den guztian; ahalegin iraunkorra eta luzea eskatzen du. Eta berriro azpimarratuko dut praktika txarra dela halako jaiegunaren urteurrenerako profil bat irekitzea, urte horretan kasurik onenean edukia sortzea, eta ondoren, besterik gabe bertan behera uztea eta hori guztia ahaztea. Ez egin, ez dakar onurarik, eta

kaltegarria da zuen proiektuen irudirako, maila digitalean zein offline mailan.

Azkenik, hau da Israelgo lankide baten goiz honetako post bat, Israelgo hedabide bateko elkarrizketa hizpidera dakarrena.



Lankide batek esaten duenez, "TikTok ez da sare sozial bat, kultura sortzeko modu berri bat baizik". Ez baduzue egiten, jende aunitz dagoeneko egiten ari da. Egunerokoan ari den honek esaten dizue. Zuen eskuetan dago kontakizuna berreskuratzea, ez galtzea, hau da, kultura sortzeko beste modu berri hori ez dadila bakarrik etorri bestelako performancetatik; etortzen baita ez dagoelako gure esku erabakitzea hori horrela ez izatea, baizik eta txerta dezagun eta saia gaitzen ulertzen zer testuingurutan bizi garen eta balia gaitzen horretaz guztiaz.

04 Nafarroako ikus-entzunezkoei buruzko hitzaldia. Hizlariak dira...



Rosa García Loire

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterreko (CLAVNA) presidentea

Nafarroako Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan eta UNEDen Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziaduna. Enpresa-kudeaketan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketan trebatua. Ikus-entzunezko produkzioaren arloan lan egin du hainbat produktorekin. Gainera, kultura- eta enpresa-ekitaldiak ekoitzi ditu. «601» Nafarroako ikus-entzunezkoen produkzio-etxe exekutiboa.



Itziar García Zubiri

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Ekoizle eta Profesionalen Elkarte (NAPAR)

20 urteko esperientzia du fikzioan eta dokumentalean, zinema/telebistarako, bideoinstalazioetarako eta jaialdietarako. 12 urtez zuzendu zuen Arena Comunicación ekoiztetxe nafarraren proiektuen ekoizpena, eta hainbat lan ekoitzi zituen, hala nola: «Cholitas», «Pura Vida», «Muros» edo «Dardara».

04 Nafarroako ikus-entzunezkoen kudeaketa: Itziar G. Zubiri eta Rosa G. Loire

Zinema.

Kudeaketa eredu gisa

VIII ENCUENTROS
GESTIONAR CULTURA
EL NUEVO VALOR DE LA CULTURA



Itziar García Zubiri:

Eskerrik asko KUNARI kultur mundu honetan zinemari tarte bat emateagatik. Kultur munduaz ari naiz, zinemaz hitz egitea tokatzen baita kultura hain konplexua den unibertso horren barnean. Zehazki, XX. mendean, uste dugu zinema beste elementu kultural bat bezala jarri dela. Hona hemen gure kontakizunean zeharka agertuko diren lau zutabeak.


01. Zinema adierazpide artistiko gisa; hori agerikoa da, agian hori da ezaugarri nagusia da, nork ikusten duen, baina benetan jatorria da: sormen eta arte prozesu baten bidez zerbait adierazi nahi izatea.

Rosa García Loire:

02. Erregistro historiko eta soziologiko gisa, uste dugulako ikus-entzunezkoak, ez zinemak bakarrik, gure memoria erregistratzen eta gordetzen duela; hortik heldu da filmategien eta ikus-entzunezko artxiboen garrantzia, zeren, dokumentalean batez ere iraganean gertatutako gauzetatik abiatuta istorioak sortzeko balio baitigute.

Kasualitatez, egin dugun gauzetako bat izan da, eta interesgarria ikusi da pandemia garaian nafar sektorean, eta erakundeek egin nahi izan dutena: pandemiaren une historiko hori ikus-entzunezkoen erregistroen bidez jasotzea, eta ekoiztetxe askori eskatu zaigu ea artxiborik bagenuen. Jakin badakigu zer-nolako erantzukizuna duela sektoreak lurralde bateko ondare immateriala eratzeari dagokionez.

03. Zinema, denbora-pasa. Ez dago askoz gehiago esaterik...



04. Baliabideak sortzeko iturri gisa. Hor sartzen dira gehien kudeaketa-ereduak. Gu zinemaren eta ikus-entzunezkoen munduan bi lurralderen artean bizi gara beti, eta ez “Héroes del silencio” taldeak abesten duelako. Alde batetik, kultura gara, baina industria ere izan nahi dugu, edo industria garela uste dugu, eta zenbaitetan, bi espazioen artean dauden ereduak bilatu behar ditugu. Ez dugu uste liskartuta daudenik, baina batzuetan pixka bat zaila da jakitea non jartzen duzun fokua, batetik, zure negozioa den hartan, eta bestetik, alderdi artistikoari edo kulturalari balio handiagoa ematean alderdi industrialari baino.

Errespetu pixka bat ematen du zuen aurrean horretaz hitz egiteak, asko baitakizue, baina egia da zeure buruari errepikatu behar diozula: “industria gara, industria gara...”. Pixka bat jaitsi lurrera eta hau bizibide bihurtu sektorearentzat eta beste

gauza batzuk bultzatu edo eraman ditzakeen zerbait, lana sor dezakeen zerbait. Honatx gure asmoa: "sormen prozesuak duindu egin behar dira, egitura bat izan dezatela". Eta eduki kulturala sortzea industria ere izan daiteke.

Gainera, bizi garen mundu honetan badira ekoizleak eta gidoilariak, edo beren ideiak ia artisau gisa altxatu nahi dituen jendea, pertsona bat edo bi edo hirurekin, eta guztiok buruan ditugun baina hemen Nafarroan ezarrita ez dauden komunikazio talde handiak daude. Gure elkarteetan ez dago Mediapro edo Secuoya bat, ezta industria gisa horretan egiten duen talde handirik ere. Prozesu jakin batzuen profesionalizazioan eta estandarizazioan sinesten dugu, baina dugun aniztasunari eta Nafarroaren berezko ezaugarriari erreparatuta.

Agian, lau puntu horiek dira sektoreak egin duen ibilbidea. Orain ikusiko dugu adierazpen artistiko gisa hasi zela, erregistro gisa ere bai, baina sektorea egiazki garatuko bada, 04. puntura iritsi behar da, jakina. Nafarroan ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea nola garatu den eta nola hazi den ikustea gustatzen zaigu. Duela hamabost urteko argazkian pentsatzea gustatzen zaigu, ez baitu zerikusirik oraingo argazkiarekin, edo hori uste dugu barnetik. Egia da duela hamabost urteko argazkia ikusten duzula eta ohartzen zarela sektorea arras atomizatua zegoela: aunitz ginen, baina bakoitza bere bidean zihoan. Hor, nik uste, diziplina askotan gertatuko da, baina egia da oso agerikoa zela, eta ez da askoz atzerago joan behar. Ez zenekien ongi nor zegoen komunitate honetan eta zer egiten zuen.

Guk ere ez genuen elkar ezagutzen. Nafarroa oso txikia izan arren, batzuetan ez dakizu profesional jakin batzuk non bilatu, eta hori hobetzen joan gara, nahiz eta oraindik bada zer egina.

Eta gauza bera gertatzen da talentuarekin. Duela hamabost urte zerbait ongi egiten zuenak kanpora joan behar zuela ematen zuen. Mundu guztiak bazuen buruan nafar zuzendari bat, baina Madrilen bizi zena, edo Bartzelonan bizi zen ekoizpen buru bat, edo Londresen lan egiten zuen gidoilari bat. Uste dugu hori aldatzen ari dela. Nafar gehiago ari dira lanean Nafarroan eta Nafarroatik, eta esportatzen den produktu nafarra egiten. Oso ongi iruditzen zaigu bakoitza nahi duen tokian bizitzea, baina egia da sarea sortuko bada, hemen egin behar direla gauzak.

Hori oso garrantzitsua zen. Bai, nafarrek gauzak egiten zituzten. Jende askok Madrilen lan egiten zuen, nafarrak nonahi zeuden, gauza asko egiten zineman, ikus-entzunezkoetan, oro har. Orduan, planteamendua hauze zen: "saiatuko gara hurrengoak pixka bat gehiago geldi daitezen". Hori garrantzitsua zen.

Erregistratutako eta sailkatutako daturik gabe. Hau garrantzitsua da; izan ere, erakundeekin hitz egiterakoan, datuak eskatzen dizkizute. Ez du balio gauzak ongi egiten dituzula esateak; beti eskatzen dizkigute altak eta bajak, negozio-bolumena... Egia da hori ez dagoela supersistemizatua, baina duela urte batzuetatik hona aldatu da, batez ere elkarteak daudelako, eta gai direlako beren bazkideen datuak biltzeko eta erakundeekin koordinaziopean partekatzeko; dagoenaren argazkia ematen digute, eta duela hamarkada bat ez genuen halakorik.

Datuetan, dakizuenez, milaka gauza oinarritu daitezke. Adibidez, prestakuntza antolatzea sektoreak benetan behar dituen profesionalak izateko, zein profil erabiltzen diren edo ez adierazten duten datuak agertzen direlako; edo dirulaguntza zehatzak; zeren, masa handiagoa edo txikiagoa bazara, horrek guztiak zerikusi handia baitu diziplina baten edo edozein sormen-industria kulturalen etorkizunarekin. Uste dut datuak oso

garrantzitsuak direla eta sailkapen erabilgarri batera doazela. Lehen ez zegoen holakorik; enpresen erregistrotik eta EJSNetatik haratago, ez dut uste askoz gehiago egonen zenik.

Finantzaketa iturri sistematikorik gabe. Hau da, eskura jar daitezkeen tresnen zentzuan, eta ez soilik publikoak, baina baita ere. Nor dagoen, zer behar duen eta egiazki organikoak izanen diren laguntza-sistema bat martxan jartzetik abiatzen da guztia; eta hor berriro industria honen berezitasunera goaz, non dena hain immateriala baita, dena ideiak dira, ez dira ukigarriak; beraz, oso konplikatu da. Horrenbestez, mugarri da sektoreak zer behar duen ulertzen duen laguntza-sistema bat edo finantzaketa pribatu bat izatea. Duela hamabost urte ez zegoen edo oso gutxi zegoen.

Berezko hedapen leihoei dagokienez, azkenean gure komunitateak ez du telebista publikorik. Horrek ukitzen gaitu, zeren, gure auzokideek badute; laguntzak eskatzen dituztenean, lehenago salmentarik izan badute, finantzaketa-portzentaje bermatu bat eramaten dute, eta Nafarroan ez dugu halakorik, ez baduzu bilatzen euskal, kataluniar eta madrildar bazkiderik. Horrek, preseski, ez digu lagundu estatu mailako laguntzetarako. Ez da aunitz hobetu, baina egia da gero eta gehiago partekatzen dugula gure auzokideekin eta horrelako espazioak irekitzen ari gara.

Adibidez, Golemek berrogei urte bete ditu aurten, eta hedapen-leiho hori aspalditik egon da. Zinetokietan, baita auzoek eta gainerakoek kudeatutakoetan ere, pixka bat egon da espazio herrikoi bat edo auzokideen mugimendu pixka bat. Baina sektorea garatzeko beste eragile bat diren hedapen-leihoei dagokienez, ez da halakorik egon. Duela hamabost urte “Punto

de Vista” jaio zen zinemaldi gisa, eta ondoren tokiko telebistaren bat, baina hura ez zen “zerbait eginen dut eta badakit non ikusi den eta Nafarroan izanen da”. Zaila zen jakitea non egonen zen sortu zenuena, zure obra. Nafarroan zailagoa zen.

Batez ere, ICAARI laguntza batzuk eskatzea eta ehunekoren bat bermatuta izatea: hori beti falta izan zaigu.

Bitarte horretan sektorea aldatu da eta gehiago ezagutzen dugu elkar, lan gehiago egiten dugu elkarrekin, besteak beste asoziazionismoari esker. Nafarroan gure sektorean sortu den lehen elkarte profesionala NAPAR da.

NAPARren sorreran lankidetzaren publiko-pribatuaren mailan klik bat dagoela sentitzen dugu barnetik. Profesionalen beste edozein elkarte bezala (orain bakarra da eta espero dut elkarturik horrela jarraitzea), NAPAR asko garen sentsazioarekin sortu da, gauza on asko egiten ari garen sentsazioarekin eta eskatzeko asko dugun irudipenarekin, gauza asko ditugu elkarren artean. Ikus dezagun nor gauden eta antola gaitezten. Hori 2010-2011n sortu zen, eta hor elkartu ziren enpresarik handienak; jakina, erreferentetzat baitituzu funtzionatzen dutela, eta hori lasaigarria izan zen Nafarroako Gobernuari eta Kultura Departamentuari begira. Horrela badakizu norekin hitz egin. Gainera, sektorearentzat berarentzat, badakigu zein sorbaldatan negar egin. Elkarrekin horixe egiten dute: gauza asko partekatu, dena eraman, eta zenbat eta gehiago jarri, orduan eta gehiago eraman.

NAPAR txikiago jaio zen, eta bost urtean ohartu gara askoz gehiago garela. CLAVNA sortu zen unean, elkarte profesionalak ireki zitzaizkien, ez bakarrik enpresei, eta uste dugu oso puntu

garrantzitsua dela hobeki jakiteko nor garen eta nork egiten ditugun gauzak. Eta, bat-batean, berrogeita bost profesional eta enpresa elkartu ditugu NAPARen gaur egun; zoragarria da. Eta badakigu askoz gehiago daudela, eta denak ongi etorriak dira. Elkarte bat sektore batentzat; benetan sentitzen dut urrats bat dela sektorea garatzeko, nahiz eta norbait kanpoan gelditu. Hiru edo lau gako komun badaude, eta barnekoak eta kanpokoak prest bagaude horien alde borrokatzeko, ona da sektorearentzat, oro har.

Horregatik uste dut NAPARen sorrera mugarri garrantzitsua izan zela posizioa eta interlokuzioa oro har irabazten joateko.

Eta CLAVNA 2016an sortu zen, NAPARen ekimenez, eta Nafarroako Gobernuak klusterra sortzeko politikarekin bat eginez. Urte horretan klusterrak sortzeko laguntzak atera ziren, eta ez zen erraza izan, ez baitzen erraza ere klusterraren bazkide sortzaileak antzematea. Argi genuen bazkideetako bat elkarte bera zela; beste bat NICDO izan zela, hau da, administrazioarekin hitz egiteko dugun interlokuzioa, eta haren mende daude Navarra Film Commission, Filmoteka. Baluarte espazioa... Guretzat garrantzitsua zen haiek egotea eta NAPAReko bazkide izatea, eta haiek ere CLAVNAko bazkide sortzaile izan ziren; horrela, estatutuetan markatutako bost bazkide horietara iritsi ahal izan ginen 2016ko amaieran. Orain berrogeitik gora gara. Sektoreko balio-kate osoa hartu dugu, kontuan hartuta ekoiztetxeak direla, baina inguruan askoz gauza gehiago daudela ekoizpen bat posible egiten dutenak. Klusterraren parte dira: unibertsitateak, prestakuntza gune gisa; prestakuntza-zentro pribatuak, pizgarri fiskalekin laguntzen diguten abokatu-bulegoak, aseguru-etxeak, zerbitzu-emaileak.... eta berrogei izatera iritsi gara.

Uste dut bi elkarte horiek Nafarroan finkatu ondoren eta gure artean oso koordinatuta lan egin ondoren (izan ere, ni presidentea naiz NAPARen ordezkari gisa), koordinazioa nahiko garrantzitsua baita, eta modu nahiko eraginkorrean koordinatuz eta erakundeekin solaskide baliodunak izanik, ikusten dugu iritsi dela estatu mailan lanean hasteko garaia. Klusterraren kasuan, modu eraginkorrean lanean ari diren eta lurralde baten ordezkari bakarrak diren beste kluster batzuk bilatzen ditugu, eta hitz egiten hasi gara. Bost daudela ikusi genuen: Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Katalunia eta Galizia, eta sare bat sortu genuen, eskualde-mailan eta bakoitzak bere lurraldean erakundeekin egiten dugun interlokuzio hori bera estatu mailan ere egiteko, eta arau-mailan eragin ahal izateko, laguntzei buruz hitz egiteko, Europatik datozen funtsekin zer gertatzen den jakiteko, beste erakunde batzuei ematen ari zaizkien funtsekin zer gertatzen den jakiteko, eta lurralde osoan zehar hazkunde ordenatua bilatzeko, eta gauzak herrialdeko gune jakin batzuetan bakarrik ez gelditzeko. Oraingoz funtzionatu digu, irekita gaude eta hazten jarraitzen dugu.

Egia esan, sektorea indartzeko urratsak ematen jarraitzeko prozesu organikoaz ohartzen zara. Profesionalen arteko batasunaren beharra ikusten genuen, eta elkarte bera sortu zen, arlo publiko-pribatuaren batasunaren beharra, klusterraren bidez sortutakoa, eta horrela, NAPAREk ahots handiagoa dauka orain departamentu batzuetan, hala nola Garapen Ekonomikokoan edo Kulturakoan... Eta hurrengo fasea, lurraldeen arteko batasuna: hiru fase, hazten joateko, sareen bidez indartzen saiatzeko. NAPAREk Europara iristeko aukera ikusi zuen CLAVNAn, beste finantzaketa-iturri batzuk edukitzeko aukera ote dagoen jakiteko edota zure obra edo produktua ikusgai jartzeko beste espazio batzuk. Argi zegoen hiru batasun horien beharra.

Maila publiko-pribatuan, CLAVNA puntu garrantzitsua izan da NAPARentzat, eta beste lurralde batzuekin batera, duela hiru urte PIAF sortu zen, Ekoizleen Elkarten Federazioa, estatu mailakoa. Bertan gaude Kataluniako elkarte bat, EAEko bat, Andaluziak bat, Valentziako bat eta gu. PIAFera iritsi ginenean, NAPARen uneren batean banakako kontsultak egin genituen ICAAn, zinema atalean, baina ez genuen zuzeneko interlokuziorik izan ICAArekin. PIAFekin, ordea, bai. Gainera, Nafarroa, besteen aldean, erkidego autonomo txikiagoa denez sektorean dabilzan pertsonen edo enpresen kopuruari dagokionez, bitxia da baina asko ikasten dute NAPARetik eta Nafarroatik. Azkenean, kudeaketa ezberdina da; batzuetan sormen handiagoa dago txikian. Kudeatu behar duzuna txikiagoa denean, zenbaitetan ideia gehiago dituzu baliabide gutxiago izateagatik, etab. Eta badugu zer eman handia. PIAF federazio bat da eta ICAArekiko interlokuzioa ahalbidetu digu, hemen Kultura Departamentuarekin egiten dugun bezala. Adibidez, urteko laguntzak taxutzen dituzu, eta hori jada izugarria da. Eratzeko, mundu guztia ordezkatua egon dadin; bestela, dena zentralizatzen da, eta lurralde ezberdinen arteko sareak behar dira, lurralde bakoitzak behar duena eska dezan. Hori garrantzitsua da.

Hori ere Sarean gertatzen da [REDCAU]. Azkenean, oso zaila litzateke Nafarroa gisa Ministerio batera hitz egitera joatea, eta are gehiago, nafar enpresa gisa, baina oraintxe bertan, Sarea zuzenean da 200etik gora enpresaren eta entitateren zuzeneko ordezkaria eta 700 baino gehiagoren zeharkako ordezkaria, eta horrek beste leku batean kokatzen zaitu, eta egiazki, horren ondorioz, beste lasaitasun batekin joaten zara hitz egitera departamentu jakin batzuekin, jakinik ordezkari handiagoa duzula. Eta beti, askotan, interlokuzio bakarra eskertzen dute.

Esaten dute: “ezin dugu hitz egin lurralde ezberdinetako hamaika elkarterekin; gauza bazarete mezua batzeko edo eskera batzuk batzeko eta era bakar batean helarazteko, askoz ere errazagoa da lan egitea”. Horretan, nik uste, hobeki gabilta gure sektorean; nafar sektorean behiontzat, lehenago estatu mailan ez genuena.

Pentsatu hitzarmen bat ixtea bost bururekin edo 55ekin. Gutxienez, egituratuagoak gaude.

Hori arestian aipatu dugun gure balio-katea da. Gu egoten saiatu gara, jakina, baina beste batzuk egon daitezela. Balio-kateaz mintzo garenean, azkenean askotan zuzenean ikus-entzunezkoarekin identifikatu ez diren gauzez ari gara. Sorkuntza artistikoz ari bagara, idazleez ere ari gara, adibidez, gidoi bihurtu daitezkeen ideiak onak dituen jendeaz. Argazkilariak ere izan daitezke, lurraldea oso ongi ezagutzen baitute, lokalizatzen lagundu dezaketenak, eta dossier on bat eratzten, eta Netflix bati zerbait saltzen. Ekoizpenez ari gara, baina baita posproduzioaz ere, non ekoizpenean aktoreak, makillatzaileak, eraikitzaileak, ile-apaintzaileak, artistak behar baititugu, lagundu




behar baitigute etxe batek jauregi bat iruditu dezan; jantziak; musikariak erabiltzen ditugu gure soinu-bandetarako, grabazio estudioak, lokutoreak... eta hori guztia banatu behar da, eta kudeatzaileak behar ditugu gure piezak zinemaldiz zinemaldi mugitzen laguntzeko eta gure lanak erakusteko. Azkenean, uste dugu gure sektorea gauza askoren bultzagarria izan daitekeela eta erabat prest egonen dena beste kultur eragile batzuekin hitz egiteko, guk bakarrik ezin dugulako.

Zerotik hasi eta hiru hilabeteen 150 enplegaturekin errendimendu betean ari den enpresa baten sorrera bezala gustatzen zait filmazioak edo pelikulak ikustea. Zer jarri behar dut martxan? Pentsa: dena. Hori filmazioa egiteko 3 hilabetei dagokienez, eta pentsatu gainerako guztia. Enpresa izugarri handi bat une batean zerotik muntatzea bezalakoa da. orduan, jende asko ezagutu beharra daukagu, sarean egon hori guztia balantzaka ez hasteko, zeren denbora laburrean eta hurbiltasun handiz funtzionatu behar baitu

Gainera, guretzat oso interesgarria izanen litzateke uneren batean neurtu ahal izatea gure ekoizpenean koordinatzeak zein modutan erakar ditzakeen ere beste sektore batzuk; izan ere, uste dut guretzat eta industria kultural guztientzat garrantzitsua dela gu indar handiko eta potentzia industrial duen sektore gisa ikustea. Bestela, txotxongiloak izanen gara. Gu ere industria bat gara, balioa sortzen dugu, aberastasuna. Indartu beharreko zerbait dela uste dugu.

Agian, aurrea hartuko diot Errege Magoentzako eta Olentzerorendako gutunari, baina prozesuaren zati guztiak kontuan hartu behar dira, zeren hiru hilabetetan desegiteko sortzen den industria edo fabrika horri buruz ari bainaiz; baina ez

badugu ikus-entzunezkoaren hasiera babestuko duen inor, ezta ideiak eta I+G ere, eta gero ez badugu non ikusia, produktua non bukatuko den, hau da, merkatua, zertarako ari gara hori guztia egiten? Hori oinarritzkoa da, begi-bistakoa, baina garrantzitsua da esatea.



Animazioak nola funtzionatzen duen ere azaldu nahi izan dugu, ikus-entzunezkoa delako, baina askotan azpisektore gisa ikusten da. Haiek, azkenean, langile asko behar dituzte, marrazkilari asko ari dira lanean. Oso prestakuntza espezifikoa behar du, baina egia da, era berean, Nafarroan nahiko garatu dela, animazioa oso gutxi zegoela kontuan harturik, baina orain hainbat estudio daude film luze eta laburretan lanean, serietan. Eta hori izan da bultzatzeko balio izan digun ildoetako bat, eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak apustua egin duen ildoetako bat da, eta eskuz esku lan egiten dugu. Klusterreko kideak ere badira, eta aipatu nahi genituen.

Zinema eta ikus-entzunezkoa, diziplina artistiko gisa ez ezik, hazkunde ekonomikorako sektore estrategiko gisa ere ikusia, eta beste sektore batzuentzako mantenu gisa ere bai: hori ere sinesten hasi gara azken urteotan. Azkenean, orduko S3a, oraingo S4a... hazkunde ekonomikoa ekar dezakeen sektorea dela uste dugu, CLAVNAn nor dagoen ikusita soilik. Interesgarria da ikustea zer beste sektorek elikatu dezaketzen zinema.

CLAVNA, batez ere, NAPAR dago, animazio estudioak ere badaude... baina halaber badira aholkularitza eta bulego batzuk pizgarri fiskalak lantzen dituztenak eta seguru-etxeak; ADITEC dago garapen teknologikorako bazkide gisa; NICDO dago, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak... Hotelen elkarte bat dago, azkenean gure filmaketek ostatuak erruz erabiltzen dituztelako. Catering enpresak ditugu, eraikuntzakoak. Askotariko unibertsoa dago, ikus-entzunezkoekin lan asko egiten duen jendea baita. Datuari dagokionez, batzuetan zaila egiten zaigu zehaztea NUPeko edo Nafarroako Unibertsitateko nor ari den zuzenean ikus-entzunezkoetarako lanean. Ez dute ekoizten, baina profesionalak prestatzen ari dira edo zuzenean parte hartzen ari dira I+G+B proiektuetan. Batzuetan guretzat zaila da, baina egia da nolakoak garen erakusten duela, geure burua sektore estrategikotzat hartzeko.

LArestian esan dugun bezala, gaur egungo argazkiak ez du antzik duela hamabost urtekoarekin. NAPAR eta CLAVNA erakundeekin solaskide baliagarri bihurtu direnetik, bai barnean eta bai kanpoan, jakinik ez gaudela garen guztiok, baina gauden guztiok bagara, guztiei ongietorria eman nahirik; orain ezagutza eta batasun handiagoa dago, eta enpresa edo profesional mota gehiagoren beharrak asetzerako joan daitekeela espero dut. Uste dut duela hamabost urte baino hobeki gaudela.

Datuak izaten hasi gara, baina falta zaizkigu. Datu batzuk ditugu, guri baliagarri zaizkigunak, baina denek ez diete balio. Oso "pozik" nor garen jakitearekin, gutxi gorabehera gure fakturazio-bolumenak jakitearekin, baina egia da zenbait departamentuekin hitz egiten dugunean gure profesionalen zuzendutako ikastaroetarako, hala nola Garapen Ekonomikoarekin batez ere, edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, oraindik lantzen ari garen datu batzuk eskatzen dizkigutela. Izan ere, haiek CNAE batetik ateratzen duten profesional kopuru handi bat maneiatzen dute; haiek diotenez, "zuek X pertsona zaudete alta emanda". Baina ez gara horiek bakarrik, eta badago hau egiten duen jendea eta gauza gehiago egiten dituen edo aldizka lan egiten duena. Gaur egun lantzen ari garen gauzetako bat da ahalik eta argazki fidelena atera ahal izatea gure sektorearen inpaktu ekonomikoaz eta enplegarritasunaz, bai eta balio-kate osoaz ere; uste baitugu hori izateak leku batean edo bestean kokatuko gaituela. Niretzat, orain, hori funtsezkoa da.

Gainera, gauzak nabarmen arintzen ditu. Solaskidea bazara, baina daturik ez baduzu, ez dakizu ere zer masa zaren erakunde bati begira. "Zertarako ari zarete eskatzen, zenbatentzat". Garrantzitsua da udalek eta gobernuek argi izan dezaten nor elikatuko duten edo nor dagoen horren guztiaren atzean. Era berean, egon daitezkeen finantzaketa-bide sendoenetarako. Orain, badugu Kultura Departamentuak abiarazi duen laguntza-sistema bat, hots, Genera Cinema, eta, gainera, zinemaren sorkuntza-prozesuaren une desberdinetako beharrak betetzen joan direla uste dugu (nahiz eta beti taxutu daitezkeen). Badira garapenerako laguntzak, oso garrantzitsua dena, produkzioko laguntzak, bai dokumentala, bai fikzioa, bai animazioa, eta esportatzeko laguntzak, "Exporta" laguntzak. Eta zinemaldietarako ere, leihoak. Dena oso estalita daukagu, nahiz

eta gehiago izan daitekeen. Udal batzuetan ere badira laguntzak. Iruñeko Udalak sorkuntzarako laguntzak ere baditu, ez bakarrik ikus-entzunezkoetarako, baita beste diziplina artistiko batzuetarako ere. EAEn aurreratuagoak dabilta, udalek urte asko daramatzatelako laguntzak ematen, eta ez hiriburuak bakarrik, zeren gidoia garatzeko poltsatxo bat izan arren, oso laguntza garrantzitsuak baitira. Ikusten ari gara, halaber, garrantzitsua dela onura fiskalaren gaia ulertzen laguntzea, eta CLAVNA sortu baino lehenagotik ere ikusten genuen, gai zaila baita. Sozietateen gaineko zergak murrizteko aukera ematen duen sektorea da, eta inbertitzaileek etekina atera diezaiokete horri, ekoizleek proiektuetako inbertsio horri etekina ateratzen diogun bitartean. Finantzetarako dauden bideak ez dira hainbeste, baliabide propioez gain, eta horiek ere badira. NAPAR eta CLAVNA egotea lagungarria izan da finantziario-bide posibleak finkatzeko, baita pribatuak ere, hala nola Innova Cultural, diziplina gehiagotarako den arren; zinema kontuan hartu badute izan da mugimendua egon delako eta obrak garatzeko behar den jendea badagoela ikusi delako.

Uste dut guretzat, jakina, pizgarri fiskala bultzada garrantzitsua dela. Lurralde komuneke zerga-pizgarrien gaintik gaudenez (nahiz eta Kanariar Uharten azpitik gauden), baina oso ongi kokatuta gaudenez, filmaketak etorri dira, jakina, eta, ondorioz, batzuetan, finantzaketa bat ixteko “gap” bat izan dezaketen nafar ekoizleek pizgarri hori izan dezakete. Nafarroaren kasuan gauza bitxi bat dago: lehenik prozesua sinplifikatu du. Lehen, pizgarria martxan jarri zenean, finantzaketa-egitura konplexuagoak egin behar ziren. Edozein bulegorekin hitz egin behar zenuen, eta esaten zizuten 200.000 euroko aurrekontu baterako ez zuela merezi. Hori orain askoz errazagoa da, finantzaketa kontratu errazagoa du, baina Nafarroan ere segurtasun juridikoa landu

da, eta beste leku batzuetan, ez. Orain proiektua aurrez balioztatzen dugu, eta inbertitzaile batengana jotzen duzunean, Nafarroako Gobernuko norbaitek jada esan du aurrekontu hori forman egina dagoela, Nafarroan gastu-irizpideak betetzen dituela, produktu kulturala dela, eta proiektua inbertitzaileari eramaten diozunean askoz ere seguruago dago hori aurrera aterako dela.

Eta horrek lehenago ekartzen dio finantzaketa prozesuari. Tresna horiek, dena den, amaierarako dira; baina lehen ekoizten ari zinen, zure etxea hipotekatu beharko ote zenuen beldurrez.. Eta bukaeran iristen zen. Baina orain, pixka bat lehenago ekartzen da. Horrela asko irabazten duzu.

Mezenasgoa, oro har, guk garapenerako erabiltzen dugu, MECNA adibidez; garrantzitsua da, halaber, azkenean hurbileko baliabideak erabiltzen dituzulakoo. Orain uste dugu, zintzotasunez uste ere, talentu ezagunak daudela Nafarroan. Erregistro historiko eta soziologikoarekin, Nafarroako bide dokumentala benetan garrantzitsua da. Nafarroatik sortutako zinema dokumentala oso indartsua dela sentitzen dut, baita fikzioa ere, baina egia da badagoela munduan barna dabilen jendea hemengo film dokumentalekin. Eta ez dut uste kasualitatea denik gurean “Punto de Vista” sortu izana, eta zinemagile berriak agertzea eta filmak egin eta horiekin mugak igarotzea. Nire iritzi apalean, dokumental ona egiten ari da.

Horretan zerikusia izanen du, ziurrenik, hedapen-leiho finkatu batek, “Punto de Vista” jaialdiak, hain zuzen. Azkenean, oso jaialdi aitortua da, eta ondorioz, dokumentalista askok begiratzen dute hona, eta ulertzen dute hura elkargunea eta etorri beharreko hitzordua dela.

Eta hori da zure filma jar dezakezun espazioaren bultzada-efektua. Hain dira garrantzitsuak leihoak sektorea sortzeko, produktua sortzeko, dagoeneko finkatuta dagoen eta nolabaiteko ospea duen leku batean erakutsi dezakezula jakiteko. Esan behar dut lehen Berlinale-ra edo European Film Market-era joaten nintzenean, esaten zidatela, Iruñetik zatoz, ah, Sanferminak. Baina orain, Iruñeari buruz esaten dute "Punto de Vista"ren hiria dela eta hori zoragarria da. Izan ere, edukia sortzen du, espazio bat duzu eta betetzen duzu. Hori oso garrantzitsua da.

Gero, edukia hedatzeko beste espazio batzuk sortuz joan dira, zinema-proiektzioak ez izan arren. "Lo que viene" jaialdia dago Tuteran, eta bertan zure proiektuak aurkezten ahal dituzu; Opera Prima zinemaldia, ez bakarrik dokumentalarena, NIFF... Hori guztia beti zaigu lagungarria, profesionalak erakartzen dituelako eta, horri esker, ezagutzen gaituztelako.


Azkenik, "Navarra como plató de cine": Navarra Film Commission-en lanaren emaitza da, hainbat tokitan eta espaziotan lurraldea saltzen aritu izanaren emaitza.

Eta Nafarroaren beraren lana. Berez polita baita, eta pizgarrik ez balego ere, aurretik ere jende aunitz etortzen zen Nafarroara filmatzera. Orain, askoz ere gehiago jarri da fokuan, baina Nafarroak aukera asko eta asko ditu filmazioari begira. Batez ere, gehixeago errazten dela. Orain, ohituagoak gaude filmazio bat ikustera Zapateriaren eta Kontseilu plazaren artean, etab. Gero eta jende gehiago dator, eta dena integratuagoa dago, eta hori ona da.

Ekoizleen eta erakundeen artean komunikazio ona badago, azkenean erraz samarra izanen da Nafarroan baimen bat eskuratzea. Hiri batzuk gainezka eginda daude eta haietan oso zaila da filmatzea; Bartzelonan publizitatea egiten duen jendeak esaten du. Hemen oso irisgarria da eta, ez bada ekoiztetxe batekin, Film Commission-ekin da, hau da, beti topatuko duzu baimena nori eskatu eta denbora arrazoigarrian erantzuten dizu. Azkenean, horrek lana errazten digu eta kanpotik datozenei errazten die.

04 Nafarroako ikus-entzunezkoen kudeaketa: Itziar G. Zubiri eta Rosa G. Loire

Talentuen eta eskura dauden leihoen gaia aipatuz, azken urteotan egindako gauzak erakusten ditugu pixka bat. Kasu honetan, NAPARko bazkideen eskutik, baina askoz ere gehiago badira. NAPARen, halaber, urtero saiatzen ari gara txosten bat egiten jarduerak biltzeko, eta bazkide bakoitzak gure profila eguneratzen dugu. Jartzen dugu zer filmetan gabiltzan eta zein estreinatu ditugun.



Jakizue hau beti eguneratua dugula programatzeko eskura ere badauden pelikulekin. Elkartearen orrian beti daukagu dosierra, eta zerbait eguneratuta ez badago, ariketa bat egiten ari gara, profesionalen katalogo bat izateaz gain, kudeatzaileen, auditorioen, udalen eta kultur etxeen eskura dauden obren katalogo bat izateko, zer egiten ari den jakin dadin; izan ere, batzuetan gauza ezezaguna da eta ez dakigu nori galdetu. Eta NAPARekoa ez bada ere, inork norbaiten film bati buruz galdetzen badigu, hobeki dakigu norekin jarri behar den harremanetan edo nor dagoen atzean. Ez kikildu eta idatzi NAPAReko kontaktura.



Kudeaketaz ari garenez, NAPAREk, Cluster-ek eta NICDOk marka moduko bat sortu dugu, nahiz eta webgune bat eta gehiago izan. Navarra Film Industry da.




Guretzat aterki moduko bat da, eta denok gaude hartatik zintzilik. Hori da interesgarriena. Elkarrekin kanpora ateratzen laguntzen digun marka da, publikoa eta pribatua nahasten dituena. Webgune honetan interesgarria da, ez soilik albisteak edo prestakuntza-ikastaroak izatea, baizik eta gure sektoreko profesionalak aurki ditzakezula, elkarteetan egon ala ez. Elkartearen ekimena da, baina Navarra Film Commission egonik, jakina, denei irekita dagoen gauza bat da. Modu koordinatuan lan egiten da, batzorde moduko bat dugu guztion ordezkariekin, eta bertan erabakitzen da marka nola landu, nola kokatzen den, zer eduki jarri ikusgai, nola finantzatzen den. Azkenean webgune bat da, badakit, baina filosofia bat dago atzean: mundura elkarrekin ateratzen garela eta datorren pertsonari ere elkarrekin egiten diogula harrera. Uste dut hori dela interesgarriena, eta horrek markatzen duela orain dela hamabost urte gertatzen zenaren eta orain gertatzen denaren arteko aldea. Gai izan gara bakoitza gure bisita-txartelarekin ez aritzeko, nahiz eta txartela egin dugun, eta mundu guztiak networking egiten duen arren;

aterki eta espazio horretan denok gaude, denok hitz egiten dugu eta nolabait denok pentsatzen dugu. Marka honekin oso modu koordinatuan egon gara Conecta Ficción-en, hemen egin zenean. Harekin askotan joaten gara merkatuetara, eta denok dugu oso presente. Gainera, ahalegina egiten dugu gida eguneratuta egon dadin; eta kanpoko filmaketa bat datorrenean, ekoizle ahaltsu batekin, eta uste duenean teknikari guztiak Madriletik ekarri behar dituela, esaten zaio: “aizu, ez; kontsultatu hau, 300 profesional baino gehiago baitaude; agian ez da dena kanpotik ekarri behar, eta hemen aurkitzen ez duzuna, dei diezaguzu eta gu bilatzen saiatzen gara”. Guk sinetsi egiten dugu, baina kanpokoek sinetsi egin behar dute, eta ikusi behar dute hemen talentua eta profesionalak daudela. Beti egon zen Navarra Film Commission-en gida bat, baina orain gida hori elkarteek eguneratzen dute, eta hori da garrantzitsua, balio izatea, ez daitezela gelditu desagertutako enpresen erregistroak, baizik eta oso gauza bizia eta oso erabilgarria izan dadila datorrenarentzat.

Gutxienez hor espazioa dago, edukiontzia egina, eta hori da garrantzitsua. Eta integratu dugu, hau da, esaten dugu: “hau gara gu”.

Egungo argazkia dugu eta, jakina, beti gehiago eska daiteke, eta badakigu asko aurreratu dugula, baina oraindik ere badagoela zer aurreratu handia, eta badugula hazteko tartea eta gehiago sinkronizatu beharra...

Etorkizuneko argazkiari erantsiko geniokeena, hobe hamar urtetan hamabost urtetan baino: Nafarroara datozen filmaketei buruz aipatutakoa, non talentua eta kontratatu daitezkeen teknikariak dauden, benetakoa izan dadila ere teknikari asko



daudelako, sektorearen eskaria Nafarroako prestakuntzarekin uztartzeko modua aurkitu delako, unibertsitatetik hasi eta maila guztietaraino. Gidoi eta zuzendaritza ikastaroez nazkatuta nagoela esatera iritsi naiz, baina egia da: “oso ongi gidoi zuzendaritza”, baina sonidista bat behar da, argazki guztia, zure filma egiten lagunduko dizuten teknikariak; bestela, nork lagundua ez baduzu, eta hori ere duina da; produkzioaz ez hitz egiteagatik, jakin baitakigu ez dutela saltzen. Nahasmendua dirudi. Baina egia da prestakuntzak %100en egon behar duela lotua sektorearen eskariari, bestela zentzugabea da, nire ustez. Egia da, halaber, oso ongi datorrela indartzea, zer behar den antzematea eta une onean dauden pertsonak detektatzea, eta prestakuntza osagarria ematen diezu; eta orduan, sonidista perfektua edo muntatzaile perfektua da. Egia da lotura hori funtsezkoa iruditzen zaidala, eta horretan ari dira lanean, baita erakundeetan ere.

Dugun arazoa da lan-eskaintza ez dela etengabea. Azkenean, filmaketa bat dagoenean, mundu guztiak behar du jendea, baina filmaketa hori joan egiten da, eta hilabete batzuetan ez da ezer gertatzen eta, zorte txarraren ondorioz, bi filmaketa daude aldi berean, eta ez duzu teknikaririk aurkitzen. Baina Itziarrek esan duen bezala, badaude ikastaroak, nahiko ongi ari dira lanean, eta elkarteok oso harreman ona dugu Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin. Izan ere, profesionalei oso zuzendua dagoen prestakuntza dugu, bai eta ikus-entzunezkoen sektorean sar daitezkeen beste sektore batzuetako profesionalak birziklatzeari zuzendua ere. Guretzat, ikus-entzunezkoen ikerketa eta garapenaren alde egitea oso garrantzitsua da, guztiontzat bezala, baina hemen funtsezkoa da pentsamoldea aldatzea. Zenbaitetan, deialdiak irakurtzen ditugu eta ematen du aparatu bat egin behar duzula edota zerbait egiteko patente bat. Guk denbora daramagu mezu bat lantzen, eta uste dugu mezu hori ongi zabaldu behar dela, hots, ikerketa eta garapena askotan ez da izaten nik motor bat eginen dudalako, baizik eta agian aldaketa bat da prozesu batean edo aldaketa bat produktuaren garapenean.

Edo ideia baten ikerketa eta garapena. Ikus-entzunezkoetan, nik beti ikusi dut ikerketa eta garapena, naif samarra bada ere, gidoia dela. Hiru urte eman ditzakezu proiektu bat garatzen. Hori ikerketa da, zure tesia egiteko dokumentazioa, tesia zure filma baita, eta zure produktua. Badakit oso naif dela, ez dakarrela puntako teknologiarik, baina garapen-faseari balioa ematea da, laguntza publikoetatik haratago. Ez dakit zer tresna izan behar den garapenean bultzada handiagoa izaten laguntzeko, niretzat hori ezinbestekoa baita. Zenbaitetan, kontaktuak bultzatzea da, edo hub bat egitea, edo lan-saio bat egitea zerbaitetarako; azkenean, fokua garapenean jartzea. Ez bakarrik ekoizpenean,

zeren ekoizteko, bi basamortu eta ekaitz pila bat igaro behar izan baitituzu.

Badago oso ikus-entzunezkoa den kontu bat, ez dakit nola funtzionatzen duen gainerako kultur industrietan, hots, beste autonomia erkidego batzuetan egiten diren proiektu-azeleragailuaz ari naiz, eta interesgarria litzateke hemen Nafarroan egitea: askotan ez naiz dirua eskatzen ari, baina eginiezadazu mentoretza bat punta-puntako jendearekin, kontaktuak dituztenekin, nire proiektua garatzen lagundu diezadaten, kalitate-zigilu bat jartzen, hainbeste finantzatzaile aurkeztuko dizkit, edo beka bat emanen dit merkatu batera joan nadin, agian nire enpresak bestela ordaindu ezin duena. Horrelako figurak.

Abycine sekulako adibidea da. Programa honek aurkezpenen topaketa bat sortzen du, proiektuen pitch-a, eta saria da garatzeko diru bat, baina irabazten ez baduzu ere, mentoretza guztia eraman duzu zurekin, kontaktuen sarea, profesionalen sarea. Hori zerotik sortu zuten, eta agian ez da gastu handia, baina Albacete existitzen laguntzen du, sektorea existitzen laguntzen du. Gainera, beste komunitate batzuetan esaten duten bezala, topaketa bat da.

Aceleradora Canarias azeleragailuak gastuak ordaintzen ditu, astebetetz zure proiektuan pentsatzen aritzeko aholkulariekin, one to one bileren bidez, zure proiektua ikusi eta hobetzen duten beste profesional batzuekin.

Abycinen kasuan, kalitatezko berme bihurtu da urte gutxiren buruan, hori da garatzen ari den proiektu bati laguntzeko beste modu bat. Norbaitek dio, “egiozue kasu honi”. Hori bakarrik. Eta

azeleragailu horiek, kudeatzeko moduaren arabera, puntu bat gehiago bihurtzen dira ICAArentzat.

Publikoak prestatzeko sistema. Esan dugunez, gero eta zinemaldi eta ekitaldi gehiago ditugu ikus-entzunezkoekin zerikusia dutenak, eta, gainera, hizkuntza oso desberdinak dituzten ikus-entzunezkoak, eta interes handia sortzen dute.

Adibidez, Nafarroan Golem gaia mugarri bat da. Oso interesgarria da. Estatuan eta nazioartean oso ongi kokatuta dagoen enpresa bat da, erakusteko eta banaketarako, eta, gainera, lan handia egiten du publikoak prestatzeko, ikastetxeetarako programazio asko eta asko dutelako; ikasleak profesionalak izanen baitira edo programatzen arituko dira edo publikoa izanen dira; eta lan hori funtsezkoa iruditzen zait. Profesionalen prestakuntza ez ezik, zinemaz gozatuko duen jendearen prestakuntza ere bai.

Zabalkunderako leihoak. Beti gehiago izan nahi genituzke, gehiago kontsumitzeko, denoi bezala.

Izan ere, agian azkenaldian entzun duzue NAPAR ari dela bultzatzen nafar edukiko gordailu bat izatearen utopia bultzatzen. Ez gara telebista publikoaz ari, baizik eta egiten ari zarena ikusteko moduko leku batez, hau da, proiektua abiatzen duzun unetik jakiteko zure lana leku horretan ikusi eginen dela. Online gordailu bat, eta zuk badakizu uneren batean hatxe zure pelikula jartzeko aukera izanen duzula, nafar publikoak ikus dezan; beraz, horrelako espazio bat baldin badago, ongi kudeatua eta zentzuzkoa, hau da, ez da gauza izugarri bat egin behar, baizik eta beste leiho baten beharra estaltzeko adinako gauza bat, orduan hori zoragarria litzateke.

Eta datuaren gaira itzuliko gara pixka bat. Gu telebistaz eta gordailuaz ari garenean, badakigu hemen ETB ikusten dela, baina haiek ez dute kanpoko produkzioan eta zineman gastatzeko betebeharrak hori, ez dute konpromisorik Nafarroarekin, nahiz eta Nafarroan gauzak ekoizten diren eta euskarazko edukiak izan behar duten. Elkarteetan lanean ari dira ETBn gehiago sartzeko. Izan ere, Navarra Televisión tamaina eta aurrekontu jakin bateko edukientzako espazioa da; haiek aurrekontu bat dute, eta ez du kanpoko ekoizpenetarako ematen. Ulertzen dut guk telebistaz hitz egiten dugunean, guri esatea, “bai, badago”.... Bai, baina telebista horiek ez dituzte autonomikoek dituzten aurrekontuak, edo Espainiako telebistak duena, TVEk % 3 bideratu behar baitu kanpoko produkziora; diru asko da. Holako figurarik ez dago Nafarroan.

Atzera egingen dut, Nafarroako Filmotekaren lana ere sekulakoa eta itzela dela esan behar dudalako. Benetakoa da. Nafarroako programazioari dagokionez, hori ere dugu gogoan, sortzen laguntzen dizun beste espazio bat baita. Esaten duzu, “filmotekak hartuko gaitu, eta han ederki entzuten eta ikusten da”. Nafarroako Zinema Zikloa, adibidez... Eta gainera, azkenaldian pixka bat deszentralizatu nahian, zinema Iruñetik haratago eramatea... Iruditzen zait oso ongi egiten ari dela eta oso elementu garrantzitsua dela zinemas eta Nafarroaz ari bagara.

Datuei dagokienez, espero dugu –baita ere erakundeetatik jakinarazi zaigulako– pausoak ematen ari direla datuen sistema izateko, eta horretaz jakitun garela, eta garrantzitsua dela alde guztientzat, hasi filmatzeko unean soilik ari diren teknikarientzat, edo ekoizleentzat, erakundeentzat, inbertitzaileentzat. Alde guztientzat da garrantzitsua.

Julia Juániz

Zinema bere bizitza da. 1990etik film eta dokumentalen muntatzaile gisa lan egiten du: Paula Consa, Bobby Moresco, Carlos Saura, Victor Erice, Rafael Gordon, Alberto Morais. Hollywoodeko Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako, Europako Zinema Akademiako eta Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako kidea da. Zuzendari gisa zinema esperimentalean eta bideoartean zentratzen da.

Aurrerapena:

«Nahi dudana asma dezakedan irudimena dut. Uste dut dena egin dezakegula imajinatzen badut».

«Ikus-entzunezkoa hizkuntza berria da. Mutilek eskoletan literaturaren historia ikasten dute, baina zergatik ez dute zinemaren historia ikasten hori ulertzeko? Aurrean daukazuen guztia pantailak dira. Zinema ikastea derrigorrezkoa da».



05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

«Zinema nire bizitza da».
Kultura-industria baten
ikuspegia



Lo habéis visto ya.
Esos serían de fotos, pero





Julia Juánizen lana

Eskerrak eman nahi dizkiot KUNARI hona ekartzeagatik, eta oso esker oneko nago denak hemen zaudetelako.

Maila sortzailean eta pertsonalean dagoen gauza bat etorri naiz kontatzera, lan egin dudanari buruz eta gustatzen zaidanari buruz. Nire bizitza zinema da, eta zinemarengatik eta zinemarako bizi naiz, horrexek hezi nauelako eta horrexek erakutsi didalako. Nafarroako ehun biztanleko herri batean jaio nintzen; han, zereal alorra eta zinetoki bat besterik ez zegoen. Zortea izan nuen zinetoki hori zegoelako, jende guztia joan zitekeen, haur txikiak jarlekuetan... Oso irrigarria zen. Izan ere, mundu hartan ez zegoen deus ere, baina zinetoki bat bai. Anaia-arrebarik txikiena naiz; amari izugarri gustatzen zitzaion zinema eta beti eramaten gintuen. Txikitatik joaten nintzen; hori beti kontatzen dut, eta iruditzen zait, ongi-ongi pentsatuta, nahiz eta Donostiara eramanen ninduten adin batean, nik itsasoa Arellanon ezagutu nuela zinemaren bidez, nik zinemaren bidez ezagutu nituen beste bizitza batzuk, ulertzen ez nituen arren... Nik zortea nuen, zeren, anaia-arrebekin, handiagoak baitziren, pelikula bat ikusten geunenean, gero komentatzen genuen. Horrekin bizi ginen. Eta ondorioz, txikia nintzenez eta ulertzen ez nuenez, lokartzen nintzenean pelikula horietan pentsatzen nuen. Horrek handiarazi zuen nire irudimena. Nahi dudan guztia asmatzeko moduko irudimena daukat. Pentsatzen dut dena egin dezakegula, imajinatzen badut. Hortik abiatu, balio hori oso garrantzitsua izan zen. Nire anaia-arrebak ere kanpora joan ziren ikastera eta, itzultzen zirenean, pelikulak kontatzen zituzten, eta nik planoz plano ikasten nituen. Ariketa bat bezalakoa zen, eta filmak bizitzen zenituen. Niretzat, alde hori oso onuragarria izan zen; nik beti egin nahi izan nuen zinema, txikitatik. Iruñera ikastera joan nintzenean, ahizpak libururen bat oparitzen zidan... baina une hartan ez zen oraingo eskolarik, eta nik beste gauza batzuk egin behar izan nituen iristen joateko. Eta azkenean, lortu egin nuen. Esker oneko nago, eta abiapuntu bat litzateke jende guztiari esateko: ezer gustatzen bazaizu, horixe egin behar duzu, eta okertu bazara, aldatu. Edozein adin duzula ere.

Hortik abiatuta, herriez hitz egin nahi dut, baina ez gaur egun landa-inguruneaz hitz egiten den bezala. Deus ere iristen ez den ehun biztanleko herriez; eta zerbait iristen bada, izaten da gauzak egin nahi dituen jendea egon badagoelako eta, niretzat, oso erraza da herrietan gauzak egitea, eta gauza horiek egin egin behar dira. Haur galdu asko dago. Jakina, gaur bestelako

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

eskoletara doaz, baina behar da haurrengana iritsi behar duen hezkuntza hori eta kultura hori, etorkizunen batera ailegatu daitezzen, zeren gazteak direnak guganaino iritsi behar baitira. Prestatuak egon behar dute eta, prestatuak egonen badira, txikitatik izan behar du, prestatuak balioetan, jarreretan, heziketan... Honako oinarri honetatik abiatzen naiz: non iristen dira kultur gauza gehien? Hirietan. Horregatik, oso esker onekoa nago, hona etorri delako ekimen hau egitera, Altsasura, uste baitut herri bat dela. Gauza hauek kanpora atera behar dute. Baina herri txikietan, jakina, gauza asko egin daitezke. Haurrak, itzultzen direnean, etxean bakarrik egon beharrean, zergatik ez die heldu batek lagun egiten? Herrietan dagoen kultura guztia, oro har, bere ahalegina ematen duen jendeari esker da, ez baitute luzaro-luzaroan ordainez deus jasotzen, eta ez ditugu deus baloratzen. Jende horrek itzuli beharko luke eta egin duten ahaleginaren arabera baloratu behar dira. Horrelako pertsonak badira toki guztietan, eta denetariko gauzak lortu dira. Zer egin daiteke herri batean? Adibidez, haurrek pelikula bat heldu batekin ikustea eta pelikula horretaz mintzatzea; hau da, ez dezatela beren etxeetan ikusi. Eta haurrak esaten dudanean, ez dut esan nahi ulertuko ez duten sei urteko haurrak, zeren balio batzuk ba baititu, pentsatua dago,



prestaturia..., eta haur horiek heziketa hori izan dezatela. Hori, hasteko.

Zer besterik egin daiteke herrietan? Hirurogei urteko andreak edota trikotatzen dakienak erakutsi diezaiela mutikoei, ez soilik neskatoei, zeren hortik ehungintzako artista bat atera baitaiteke etorkizunean. Gaur egun, ehungintza guztia maila artistikoan berriro gorantz doan honetan, zergatik ez du ikasiko mutiko horrek eta ez du egingen beretako jertserik? Halaber, 60 urteko emakumeak agian 600 euroko erretiroa du, tristezia da gero... Etxea izanen du eta baratzea, eta jan dezake, baina ordaindu diezaiogun zerbait. Eta egin dezatela noizean behin, eta haurrek jolas bat bezala ikas dezakete.

Zer beste egin daiteke? Erakusketak. Ez baitira herrietara iristen, Eta baten batek bil ditzala, ez haurrak, adinekoak baizik, eta talde hori biltzean, mintzatuko dira argazkia jartzeaz edo kentzeaz... Zer argazki mota da? Eta hor badago denen arteko sinergia bat eta beste elkarrizketa mota bat egonen da. Nork esan du jendeak "Sálvame" ikusten duela? Jakina, ez baititugu hezten; zuk adineko jende hori

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

txikitatik hezten baduzu, hori aldatuz doa; beharbada, ez da azkar aldatuko, baina aldatu behar da, balio batzuetan heziko dituzulako. Eta urteak beharko dira, baina ez bagara haurrengandik hasten, ez da deus ere lortuko, ez baitugu deus baloratzen Espainian kultur arloan. Gobernuari eta instituzioei dagokien politika da, nik uste. Atzo leku batera joan nintzen, Nafarroako Museora, eta triste baino tristeagoa gelditu nintzen; instituzio bateko politikaria izan banintz, arras tristea nengoke: museoko egun libreka, eta turistak zebiltzan, lau. Museo zoragarria da. Nola utz daiteke hori? Nafarroak duen informazio guztiaren mailing-a egin behar da, jendea ez da ezertaz jabetu. Lauk jakin dute eta ez dira joan. Baina ikastetxeak ez dira jabetu: mailing-a ikastetxeetarako; ez soilik ezagutzen ditugunentzako. Mailing-a politikoek dute, boterea dute hori eginez. Atzo, Nafarroako Museoak 16 edo 18 urteko neskez beterik egon beharko zuen, gaizki ikusten duten arren. Baina Zuloaga bat edo Goya bat ikustea, beharbada ez dute ikusi. Dena arrapaladan eta arin ikusten badute ere, baina ikus dezatela. Eta atzo, dohainik zen egunean, ez zeuden. Ni politikaria izan banintz, goiz hau oso triste nengokeen. Eginbeharra zen, nik uste; ez dut esaten betea, baina leku asko eta askotara iritsi beharko zuen. Adibidez, hirugarren adinekoren egoitzara, atera daitekeen jendearengana; joanen baitziren, baina ez dute horren berri izan.

Ikus-entzunezkoa lengoia berria da, jakina. Neska-mutilek ikastetxeetan ikasten dute literaturaren historia, oso ongi. Zergatik ez dute zinemaren historia ikasten, huraxe ulertzeko? Aurrean duten guztia pantailak dira. Zinema ikasi egin beharko litzateke. Irakatsi beharko litzateke nola engainatzen ditugun minuturo zerbait oharkabean eros dezaten; hori ikasi egin behar dute. Ez bada ikasten, eta gobernuek ez badute irakasten, mendean hartuko ditugu, nahi bezala engainatzen dituzte, eta engainatuko dituzte, zeren, nik, muntaketaren bidez, engainatu baitezaket. Zerbait erosarazten ahal dizut aurkezten dudan modu hutsagatik. Haiek txikitatik ikasi behar dute, gauzak baloratzen jakiteko; eta hori txikitatik egiten ez bada, txarra... Haiengana iritsi beharra dago. Lengoaia berri baten istorioa da. Hizkuntza guztiak ikasi behar dituzte, nahi ditugun guztiak, eta hori hizkuntza berria da. Oinarria eraman behar dute; derrigorrezkoa izan beharko luke, nik uste.

Zer gertatzen da Espainian Kulturarekin? Politikariak kulturaren beldur dira. Kultura hitza entzun eta beldurtu egiten dira. “Badatoz horiek” Ez! Zer gertatzen da? Zergatik? Prado-n



Julia Juánizen lana

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

erakusketa bat badago, kasuan kasuko politikaria joan, eta argazkia ateratzen du. Zergatik ez da politikaririk joaten gazteen galeria berrietara erakusketa hori ikustera? Zergatik ez du kritikariak jende berri interesgarriaren erakusketa hori aipatzen, onerako edo txarrerako? Zergatik dira beti berdinak ateratzen direnak? Hori ere gaizki iruditzen zait. Hori erakundeetatik dator, eta baloratu eta ikusi egin behar da; eta politikariek erakusketak ikusi behar dituzte, musika entzun eta zinemara joan. Zein politikari doa zinemara? Badakit gaur egun bere etxean ikus dezakeela pantaila handi batean; ongi, baina erakusketetara ez dira joaten; lau joaten dira argazkirako, behartu egiten dituztelako. Baina beste alde hori ez dute egiten, horrexek aldatu behar du. Jakin eta baloratu behar da kultura hezkuntza dela, ekonomia dela, hori baloratzen jakin behar da.

Zinemaren gaiari helduko diot. Ni zinema-langilea naiz; jakina, sortzailea naiz, ez dut nire burua teknikaritzat jotzen. Teknikaria esaten badidate, etxera joanen naiz, ez baitut soilik lan egiten ordenagailu bat erabiltzeko, zerbait gehiago izan behar du burutik, hori oso argi daukat. Zinemaren alde sortzailean ari naiz, muntaketan, eta aurretik, aurre-ekoizpen bat izan da, gidoia prestatzea... Zer gertatzen da



Espanian? Ausartuko naiz esatera gidoi asko ez daudela filmatzeko prestatuak. Gidoiaren irakurketa bat egiten duzu, eta jende batek esaten du, “baina, hau gertatzen da...?” eta filmatzen segitzen da. Hori gaizki iruditzen zait. Gidoiak oso itxia eta oso pentsatua egon behar du. Oro har, ari naiz. Munduan den lanik sortzaileena da muntaketa, nire ustez; beti duzulako zuzendariaren lana ondoan, Espanian. Beste herrialde batzuetan, ez hainbeste. Izan ere, irudiak ematen dizkizute, eta zuk aukeratu behar duzu nola kokatuko dituzun hori sortzeko. Fikzioaz mintzo bazara, gertatzen dena da egituratu samarra dagoela eta, zer filmatu den hartu behar da kontuan, baina zerbait berri sortzen ari zarenean, hori bai dela zerbait mentala, edota gidoirik ez dagoen dokumental bat baldin bada, hortxe sortuko duzu. Gidoiak hainbat pauso ditu; “lehen gidoia”, “filmazio gidoia”, aldatuko dena, eta “muntaketa gidoia”, aldatu egin daitekeelako... zerbait berri asma daiteke elkarrizketetan eta elkarrizketaren zati bat ken daiteke. Zenbaitetan, muntaketa bateko sekuentzia osoak kentzen dira; zenbaitetan, sekuentzia bat, hirurogeita hamargarrena, kasu, hogeita hamarrera pasatzen da. Gauzen egitura aldatzen ari zara film baten barnean. Egiturak biraketa bat izan dezake eta muntaketa bat egiten da. Film guztietan ez da egitura-



Julia Juánizen lana


aldaketa bat egiten, baina askotan bai. Eta muntaketa agian da sekuentziak bereizita muntatzea; hori muntaketaren zati bat da. Baina aldaketa hori hasten duzunean, hori baita garrantzitsua, hori muntaketaren alde sortzailea ere litzateke. Horregatik diot sortzailea dela. Ez da teknikoa, eta ordenagailu bat erabiltzen jakitea beste kontu bat da. Pentsatzen aritu behar duzu nola kokatu behar dituzun edo zergatik ari zaren haiek aldatzen, eta zergatik pentsatzen duzun sekuentzia hau kanpora doala eta ez den deus gertatzen, eta hori gidoitik ikus zitekeen... baina une horretan, agian, ez da gertatu eta filmatu da.

Istorio bat kontatu nahi dut. Zinema hasi zenean, batez ere asmakizun bezala hasi zen. Baina esan nahi dut Lumière anaiek hasi zutenean, pentsatu zutela zientziarako soilik zela, baina sarrera bat kobratu zen unean, hori industria izan zen. Nik banaketa egiten dut: zinema Kultura gisa eta zinema industria gisa. Niri Kulturakoa interesatzen zait, nahiz badakidan bizi behar dudala eta bestearengandik ere bizi behar dudala. Baina gaur egun babestua ez dagoen zinema da zinema interesgarria, nik uste; eta hori Kultura da. Kultura den zinema herrialde ororen ondasuna da, txikia edo handia izan... Guztioi onura dakarkigun ondasuna da, eta maila ekonomikoan, izugarri. Horixe baloratu behar da. Industria bide batetik joanen da, ederki, baina Kultura, ba, beharbada pelikula bat egin behar da dirua galtzeko, istorio hori mantentzeko. Horixe jakin behar da, proiektuak aurkezten direnean, izan Nafarroan, izan edonon. Hori Kulturaren zatia da, eta hor politikariak eta instituzioak sartzen dira ikusten jakiteko.

Zer gertatzen da instituzioetan? Egungo zineman gertatzen ari dena da Netflix, Amazon, HBO... dugula. Zoragarria mundu guztiarentzat, lana sortzen dute. baina niri ez. Iruditzen zait jende horrek egiten duen zinema-mota berbera dela, baina ez gara ohartzen. Berbera izanen den zinema-kate batera joanen gara, non herri gisako identitatea galduko dugun. Zein da gure identitatea? Netflixerako eginen dugun pelikula Estatu Batuetan ikusiko denez, itzulpena ez da espainolez egonen, ingelesez baizik. Zer egiten dugu?, AEBn ulertuko ez denez, orduan ulertuko den zerbait eginen dugu. Nire ustez, hori zentsura da eta horixe ari gara bizitzen. Oso zentsura ezkutua da, gainera. Beti agertzen da pelikula txiki eta oso interesgarri bat; nik horiek ditut gogoko, eta horiek defenditu behar ditugu Kultura gisa, baina Kultura Ministeriotik. Ministerioak, orain, Kirol eta Kultura du izena: zerbait gaizki doa. Kultura gauza bat da, eta Kirola, beste bat. Orain, hamar urtean egin gabeko ariketa egin dut, zoragarri, baina kirola

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

gauza bat da eta kultura beste bat. Eta zer gertatzen da zineman? Elkarte asko eta asko daude, eta hori guztia hobetzen ari da, indarra hartzen duelako. Baina, zer egiten du ICAAk? Deus ere ez. Badakigu izan daitekeen zinema-legerik onena Frantziakoa dela. Hogeita hamar urte daramatza zinemako jendeak hori etor dadila eskatzen, estatuko agentzia bat atera dadila. Non dago? Haiek diote eginen dutela... 30 urte ondotik segitzen dute, eta jendeok esaten dugu gauza batzuk lortu ditugula... Ez dugu deus ere lortu. Zergatik? Hasiko naiz: euskal teknikariok Madrilerara joan ginen, ez ziguten ordaintzen, ez bidaiarik, ez dietarik. Orain, zer egiten dute Madrilgoek Nafarroara etortzen direnean? Nafarroako jendea hartzen dute dietarik ez ordaintzeko. Zer diote Madrildik datozenek? “Ekipoa dakart”. Ez, behartu behar ditugu, euskal teknikarien elkarte batek 90eko hamarkadan Madrilerara joan ginenean egin zuen bezala, gu eramaten jarraitzeko beharra izan zezaten, ez gintzatela hartu astebeterako, eta gero alde egiten zuten eta abandonatuak uzten gintuzten. Orain, berbera egin behar da: Iruñera bazatoz, haiekin hizketan hasten zaren unean, esan behar zaie pixka bat prestatua dagoen nafar bat egon behar dela, eta ez dut esaten niregatik, baizik eta prestatuko den eta jauzia eman behar duen jende gazteagatik. Nafarroara bazatoz eta pizgarri



fiskalak badituzu, egiazko nafar bat eraman behar duzu eta dietak ordaintzen dizkiozu, eta hotelera joan behar badu ekipoarekin egoteko eta sortzailea izateko, ordaintzen diozu, ez duzu bere etxera bidaltzen.

Beste gauza bat Kultura mailan, hots, zinema egina dagoenean, hura mugitu beharra dago. Diru asko ez dagoenean, zinemaldi txikiagoetara eraman beharra dago –aukeratzen bazaituzte–. Baina, eskuarki, ez dago iristeko modurik, ez egin den zinemara, ez interesgarria izan daitekeen horretara. Uste dut zerbait politikoa dela. Esanen didazue Cannesen espainola dagoela; ni egon naiz eta ikusi dut. Ez zegoen deus ere. Produktu bat saltzen jakitea da. Produktu bat saltzen jakitea da, adibidez, stand bat paratzea eta mailing-a mugitzea, eta jendeak entzun dezala zinema hartaz eta produktu hartaz hitz egiten dela, agian Nafarroatik. Eraman behar da, ez dut esaten Cannesera, produktu hori sal daitekeen tokira. Zinemak dirua ematen du, baina hori aprobetxatzen jakin beharra dago Kulturara iristeko. Beste gauza bat da zinemak diru aunitz ematen duela; ez da horretaz hitz egiten Espainian. Zinemak Espainian dirua ematen du, bai. Baina Frantzian, diruaren zati hori zinemara itzultzen da zinema gehiago sortzeko. Espainian ez, ordea. Hainbat milioi euro jarri ahal

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

izanen balira zinemara itzultzeko; eta diru hori eman dadila, baina ez dadila soilik izan Kultura Ministerioa “hau ematen dizugu” esaten duena; eta iduri du oparitzen dizutela... Edo telebista, iduri baitu oparitzen dizutela, erosketa bat emisio bakoitzeko egiten ari denean, eta ez dizu ezer inon oparitzen. Laguntza horiek ez dira burutik eginda dauden laurentzat, Kultura batentzako laguntza baita, eta horrek askoz ere esplotatuagoa egon beharko luke maila guztietan eta askoz ere urrunago iritsi. Zinemaz, musikaz eta guztiaz ari naiz. Ez dakigu gure gauzak saltzen. Ez dakigu saltzen, politikari horiek edota erakundeetan daudenek egunerokotasunari begira eta eguneroko mugimenduari begira egiten dituztelako gauzak; ez, ordea, etorkizuna gogoan hartuta. Gainera, etorkizun hori ikusten eta hari aurrea hartzen jakin beharra dago eta urrunago iritsi. Baina, batez ere, daukazun horretan sinetsi eta alde guztietatik saltzen jakin behar da. Ez soilik Madrilén. Japonian jakin behar da saltzen, beste herrialde batzuetan. Badakit krisian gaudela eta orain oso zaila dela, baina lehenago ez zen horren zaila eta ez zen egin.

Sormenari dagokionez, uste dut zinemak bestelako lengoaia berriak izan behar dituela. Nire ustez, aldatu beharra dauka, eta hori betidanik existitzen da, ez gara mundua deskubritzen ari. Lengoaia berriaz ari garenean, bestelako narratiba da; ez dadila jarraitasunezko zerbait izan, Spielberg erabat errespetatzen badut ere, hori zinema klasikoa eta jarraitasunezkoa baita, oso interesgarria izan badaiteke ere. Badira beste metodo eta beste bide batzuk bestelako zinema egiteko, egin dira, eta horiek baloratzen jarraitu beharra dago. Eta bide horiek bilatu behar dira, bestelako zinema izanen bada. Baina, batez ere, zinema hori ikus dadila, ez dadila ezkutatua egon. Guk izan dugu horrelako zinema egin duen jendea, eta inork ez du haiei buruz hitz egiten, hala nola Javier Aguirre, Basilio... Javier Aguirrek Parchís-en pelikula egin zuen, jakina, eta oso ongi, behar adina diru irabazten baitzuen gustatzen zitzaion bere alde sortzailea egiteko. Gizon hori gaur egun jaun eta jabe izanen litzateke AEBn, eta Espainian hil zen. Baloratu zen, baina kito. Hemendik 10 urtera ahaztua egonen da, inor ez da hartaz oroituko. Hura ezagutu eta haren zinema ikusi dugun guztiok alde egiten dugunean, historiatic desagertuko da. Bestalde, gauza ona litzateke, halaber, antzinako zinemaren balioak jasotzea (filmoteken barnean baitaude), gure zinemaren eta Nafarroako zinemaren historia hasieratik jakitea. Niretzat, oso jende interesgarria zegoen. Ni hasi nintzenean, Iruñean bazegoen zinema egiten zuen emakume bat, Puy [Oria]... Jende hori ahaztua dago, eta jendeak ez du haien berri izanen, eta haien filmak ez dira ikusiko, Filmotekan egon arren. Hori guztia atera eta gorde




Julia Juánizen lana

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

behar da; jendeak ahalegin handia egin baitzuen. Baziren balioak, eta jendeak ahalegin handia egin zuen. Ez dezagun pentsa orain bakarrik ateratzen direnik zinegile onak; lehenago, baziren. Ez zen iristen orain bezala, ez zegoen oraingo biderik; ez dut esaten gaur egun bide errazak direnik, dena oso korapilatsua delako; baina ez zen hain erraza jende hori iritsi ahal izatea orain Hollywoodera edo Cannesera iristen den bezala. Baina toki batzuetara iristen zen, eta zinema horretan, badira balio handi-handiko film asko, eta hori ez daiteke ahaztu. Lan egiten zuen jendeak hortxe egon behar du; jende askok gauza asko egin ditu nafar zinemaren alde, eta mantendu beharra dago.

Sormena hizpidera ekarrita, nik esanen nuke denok garela artista. Txikitan, irakasleak esaten zidan: “zure ahizpak baino okerrago marrazten duzu; zure ahizpa izugarri ona da”. Hori entzunik, pentsatzen nuen ez nuela ezta marra bat egiten ere. Tira, ahizpa ona zen, baina nik ere marrazten nuen. Halako irakaslea ere, halako gauzak esatea ere, edota gaizki idazten duzula. Baina Vicente Galbete izan nuen nik arte irakasle, eta esaten dut, ama maitea! Kopiatzen uzten zigun, baina nola ez? Erne egoten ginen kontaktzen zigunari. Arte



diapositibak jartzen zizkigun. Egiptora joana zen eta ekartzen zizkigun. Hain zen adimentsua, harekin ikasi genuen... Berdin zion kopiatzen uzten bazigun, bagenekielako, irakasten zekielako. Bizitzan gutxi gorabehera lan bat egin duen jendearengana iritsi beharra dago; ez dira sortzaileak izan arlo batzuetan, bizitzak ez dituelako ezertara eraman, baina sortzailea izan zaitezke eta pentsatu behar duzu zer egitea duzun gustuko. Eta zu bakarrik zure etxean, izan zinema, izan liburu bat idaztea, olerki bat, edo izan marra bat egitea; marra egiten duzu, ateratzen zaizulako, hori egiten duzun unean ongi sentituko zarelako. Hori egiteko astia baduzu (orain adin bat baituzu), egizu. Eta zoaz erakusketa bat ikustera, bai horixe. Horrek emanen dizu indarra. Gustatzen zaidan film bat ikusten dudanean, negarrez itzultzen naiz etxera, zorientzua naiz. Dakidan guztia erakutsi dit zinemak. Bizitzako gauzak erakusten zizkidan; zuzendari jakin batzuekin lan egiteak beste gauza batzuk erakusten zizkidan, bost edo hiru hilean behin taldez aldatzen zinen... Bizitzan txertatua daukat, horixe egokitu zait. Zinegilea izanen naiz, eta zinema nire bizitza izanen da ehun urte bete arte, eta filmak ikusiko ditut. Baina gainerakook gauza berbera egin dezakegu, eta horixe da Kultura, eta aurrera egin Kulturaren bidez, eta gazte jendea animatu, gure




Julia Juánizen lana

geroa baitira. Ez ditzagun ahaztu. Eman haiei erraztasunak, bizi ahal izan daitezten: dena ezinezko egiten ari gatzaizkie. Balio batzuetan hezten baditugu, izateko modu batean, eragin dezala horrek ekarpena gizarte guztiarentzat, eta orduan, mundua aldatuko dute. Badakit nekeza dela, baina aldatuko dute. Irakats dezagun zinema eskoletan, ikastetxeetan... derrigorrezkoa da, inork ez du ikusi nahi. Lengoia bat da; nik muntaketa-trikimailu bat egin dezaket zuek guztiok engainatzeko. Baina hori Coca-colarekin egiten zela esaten zen, baina ez nuen izena esan nahi, barkatu. Zineman ikusten zenuenean, huraxe ikusi, atera, eta huraxe erosten zenuen; hori egia da. Hortik abiatuta, muntaketa barnean mila gauza egiazkoak diren bezala. Ikasi behar da, ezin gaituzte engainatu. Toki guztietan engainatzen gaituzte, eta ezin gara engainatzen utzi, aurrera egin behar dugu. Eta mundua ikus-entzunezkoa da. Zinemaren aldekoa naiz, baina ezberdintzen dut, bai. Ikus-entzunezkoa gauza guztietan egonen da.

Pandemian, zer gertatu zen? Dena dohainik izan genuela, eta dena dohainik ematen digutenean, ez diogu baliorik ematen. Zer gertatzen zitzagun? Erakunde askotan dena dohainik eman zigutenez, eta Espainia lapurreta-herrialdea denez, are pozago geunden: dena dohainik zen. Zer gertatzen da orain, dohainik ez denean? Nork pentsatzen du pandemia osoan ikus-entzunezkoa sarrarazi diogun jende horrengan, hots, baliabide ekonomikorik ez duena plataforma horietako kide eginez gauzak ikusteko? Abandonatu ditugu, eta esaten diegu: zoazte zinemara. Sarrarazi diezu dena dohainik izatea, eta hori aldatu beharra dago, eta jendea hezi beharra dago bestelakoa izan dadin. Oparitzen duzula jakinik oparitu behar duzu, eta jendeak ulertu behar du hori opari bat dela. Pandemian oso ongi egon gara horrekin guztiarekin, pandemia bat zela ahaztu gabe, eta bakoitzak bere erara bizi izan du, baina jende horrek ez du horrelakorik. Erosahalmena duen jendeak, bai. Gainerakoek, ordea, ez. Haiengan pentsatzen dugu? Ez. Horrek bai, horrek zerbait ezberdina ekarriko du jende horrentzat. Dena izan dute eta, bat-batean, ez dute ja ere. Nola ez dute Sálvame ikusiko, ez badute baliabiderik beste gauza batzuk ikusteko? Zer dute beste kate batean? Berdin dio, antzekoa baita. Hori ere aldatu beharra dago; telebista hezigarria behar da. Badira egin litezkeen programak, eta telebista horrek funtzionatuko luke, jendeari jakiten irakatsiko geniokeelako. Limurtzen dituzu, hori eramaten diezu eta erraz jartzen diezu. Eramaten ez badiezu, zer ikusiko dute? Orain ez dago lehenagoko kultur programarik. Gero, esaten dute: X jartzen dut, eta ez du inork ikusten. Tira, izan jendearengana iristeko pazientzia, ikusi ahal izan dezan.

05 Itxiera-hitzaldia: Julia Juániz

sLehenago, “egin daitekeen guztia” esan dudanean, hauxe esan nahi nuen: pentsatzea hiru argazki jarraituekin eta musika batekin bideo bat duzuela. Ikusi duzue jada. Baina hiru argazkiren orde, zuk beste gauza bat jartzen baduzu? Musika bat jartzen duzu edo musikarik gabe; edo edozein irudi jartzen baduzu eta María Zambranoren olerki bat, eta beste istorio bat duzu. Zergatik ezin duzue hori guztia egin? Edo nire amonaren edo amaren historia jarri, ez baita kontatu. Gaur egun, argazkiekin mila gauza egin daitezke ordenagailuan collageekin. Josten dakien jendea, badira ehun-lan zoragarriak; marrazten dakien jendeak marraztu dezala. Horrek zoriona dakar eta bizitza errazten dizu.



Julia Juánizen lana

**Altsasuko (Nafarroa) IORTIA Kultur Gunean egindako topaketa,
2022ko maiatzaren 19an**

[APGCNaren Youtubeko kanalean eskuragarri](#)

KULTURAREN BALIO BERRIA

Babeslea



Laguntzailea



Antolatzailea

